

MODA:

UDABERRIA-UDA'04.

TENDENTZIAK

MISS ARABA'03-MISS EUSKADI'04:

sara gregorio roldan

• HIKAATENEOKo EUSKAL
FOROA

• EUSKARA AÑANAN
MINGAINEAN

• ARABAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA

• TOKI EDER IKASTOLA

• LIVE IN VITORIA



TREBIÑOKO AUZIA


RIKARDO ARREGI idazlea

Maketazioa
Diseinua

Dalvez
argitarazleak
www.dalvez.com

Diaz de Olano margolaria, 22 behea
Tfnoa.: 652 776 509
info@dalvez.com
Faxa: 945 24 52 69

M
Bhi



ELKARREKIN AURRERA

Geure izate kulturala
ezagutuz eta onartuz,
mundua ezagutzeko
eta hobia egiteko
dihardugu lanean.

M
Bhi
MENDEBALDEA
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

DBH-ESO
BATXILERGOA

945179622
010329aa@hezkuntza.net



ahorik aho:

RIKARDO ARREGI idazlea

8-10.
orr.

MODA:
TENDENTZIAK & MISS
ARABA-MISS EUSKADI

11-15.
orr.



gaika:

17-20.
orr.

TREBIÑOko AUZIA

24-25.
orr.



EUSKARA AÑANAN
MINGAINEAN:
Takolo, Pirritx eta
Porrotx



21-23.
orr.

EUSKAL
FOROA
HIKAATENEOn

Euskaltasunean lagun:
Maite Ramos

26.
orr.

Arabako Bertsolari
Txapelketa. Finala



27.
orr.



GAINERA...

HAN-HEMENKA (4-7. orr.):

- iritzian (4-6)
MIKEL URDANGARIN: estu antzean
ROBERTO GLZ. DE VIÑASPRE: andolin, adiskidetasunaren lau-
dorioa
SOS ARRAZAKERIA-fede garcia
- kaleak dio (7)
osasuna & kirola
- araba bixotzian (7)
JON ZUBIAUR irudigilearen eskutik

KULTURAI SIALDIARI SO (29-39. orr.):

- agenda (29)
- idazleen gupila (31)
depende V. RIKARDO ARREGI
- historia zertzeladak (32-33)
KOLDO ORTIZ DE GINEA: Toki Eder, apustuaren balioa
- arte txokoa (34-35)
LIVE IN VITORIA disko-liburua
(Zunzun kolektiboa)
- bidaia (36)
TONBUKTU, XABIER ERRASTIren eskutik
- BERTAKOARI SO! (37)
ERLANTZ URTASUN historiagilearen txokoa: Artziniégaz galde egin?
- ERREZETA (37)
- geu-ren eskaintza: (38)
- komikia (39)
IÑIGO SARASOLA

Azala ...



"Moda ikuspuntu askotatik aztertu eta eztzabaidatu daiteke, baita kritikatu ere. Jantzkerak, tendentziak, modernoa edo ipingarria dena ez dira beti sinonimoak, baina nahitaez guztiok gaude, azken finean, diseinatzaile eta azken tendentzien eraginaz kutsatuak. Biluzik behintzat ez gara ateratzen kalera".

argazkia: QUINTAS

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak egin, bideratua eta kudeatua


Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxes: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:	josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	josune verez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak:	edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:	estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:	estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak:	edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa:	patirke sanz eta david alvez
logoa:	io grafix
komikia:	iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:	mikel urdangarin, roberto glz. de viñaspre, sos arrazakeria, maite lekue, jon zubiaur, rikardo arregi, erlantz urtasun, arabako bertsozale elkarte, quintas eta gamarrako ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa:	edurne begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak:	maite lekue
Sustapen-harpidetza saila:	edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500
	LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





Mikel Urdangarin

ESTU ANTZEAN

Atzo, aspaldiko partez, Zornotzako lagunekin izan nuen afalordua. Gehienak, nerabezaroan egin ginen lagun; orduan sortu zen koadrila. Euskal Herriko gehientsuenak bezala, hasiera batean, koadrila, mutilez osatuta zegoen bakarrik, genero ñabardura hau lege hautsiez inburtzeraino. Atera kontuak, asteburuetan neskatan ahalegintzen zenari jazarpen beldurgarria egiten genion besteok. Ah ze artaburuok...

Hala ere, berehala aldatuko ziren gauzak gurean eta pixkanaka, naturaren poderioz, neskagun multzoa batu zitzaion tribuari: esan beharrik ez dago, zein mesede egin zion gertakari honek lagunen osasun mentalari. Horrela geunden atzo, gizon eta emakume, erdi ezkondu, erdi soltero, denak elkarren ondoan, afari bat aitzakia.

Normalean, afariko argazkia berdintu samarra izan ohi da. Gai orden eta guzti: batetik, burusoilak (ugarik koadrilan) elkarri zirika, ile apurren defentsan, hasieran umoretsu, gerora haserreagotzen. Bestetik, tripadunak edo gizontzen hasitakoak elkarri apustuka, zeinek lehenago mehetu. Bi ezaugarri hauek konpartituak dira gehienetan. Eta ezin ahaztu neskak, pisu erosi berrien gaineko xehetasunak, aurreztu beharra eta badakizue: futbola, politika... Atzo

baina, Olatzek, Rafaren neskagunak, bestelako berria eman zigun: Haurdun nago! Biak zoriondu nituen, ama lehenbizi eta aita ondoren. Atoan jarri nintzen pentsakor...

Izan ere, zaila da pentsakor ez jartzea zeure belaunaldikide diren asko, amatasun eta aitatasunerantz irmo doazela ikusten duzunean, bata bestearen atzetik. Gainera, ikuskizun hau nabarmen ugaritzen da 30-ak pasatu eta gero. Estualdia etortzen zaigu zenbaiti, gure burua besteek hartutako bide horretatik urrun sumatzen dugunean, gizarte ereduetatik aparte.

Iruditzen zait oraindik ere, bakarrik bizitzeara ez dagola ondoegi ikusita gizarte honetan. Ez digute irakatsi bakarrik bizitzen, bakardadeari beste umore batez aurre egiten. Ez dugu erraz irudikatzen sendirik gabeko etorkizunik, seme-alabarik gabeko sendirik. Iruditzen zait, bikote asko (ez dut uste Olatz eta Rafaren kasua denik) bakarrik bizitzeari dioten beldurragatik eta ez elkar maite dutelako daudela elkarrekin.

Duela gutxi entzun dut ugaritzen ari direla amatasuna bikoterik gabe bizi nahi dutenen emakumeen kasuak. Aukera bat da.

Baina tira, hola geunden atzo koadrilan, gutxi batzuk estu antzean, gainontzeko denak, ustez, lasaixeago.

Roberto Glez. de Viñaspre

Andolin, adiskidetasunaren laudorioa

Arratsalde hotz honetan, zure hiletara bildutako senideen eta adiskidetasunaren hazia ernarazi duzun lagun guztien arrimuan, ostera ere madarikatzen dut zure heriotzaren zuzengabea. Badakigu hilordua beti ezgaraiko dena, noiznahi datorrela ere, baina zurekin, Andolin, hain izan da errukigabea... Egun, zure jaioterriko San Jorge elizan, ene oroimenean ikusten zaitut, une latzetan oroitzapenek izan ohi duten gardentasunaz ikusi ere, Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Liburutegian, Karmelerenean.

Jadanik hamazortzi urte igaro dira Kaliforniatik Euskal Herrira itzuli zinenetik. Ondotxo gogoan daukat Deustun eman zenuen aldi hura, geroago Arabako campus-era irakasle joan zinen arte. Urte bi haietan, Ikastetxe Nagusiko jantokian eta bazkalondoko solasaldien inguruan, adiskidantza bete-betekoa eraiki genuen, denborak eta distantziak ahultzerik ez duten horietakoa. Zure ontasunak eta bihotz zabaltasunak atsegin ematen ziguten Karmeleri eta Nereri, Marisari eta lauroi. Zure nekaezintasun baikorra miresten genuen. Gogoangarria zait zure bizitzan, berbaz baino askotxoz gehiago egitez, aldarrikatzen zenuen xalotasuna. Halakoxea zinen-eta, tolesturarik gabekoa.

Gomuta dut behin, Deustuko bazkalondo haietako batean, harroxko samarra kontatu zeniguna. Hura, jakina, osterantzeko harrotasuna zen, daitekeen garbien eta lañoena, inortxo ere gutxiesten ez duena. Espainia aldeko ez dakit zein biltzarretan egon berria zinen eta bertan ezagututako norbaitek bere harridura aitortu ei zizun. Hark abertzaletasuna hertsikeriaren eta ezjakintasunaren ondorio legez ulertzen zuen, baina zelan liteke zu, atzerrian luzaroan bizi izandakoa, beste hizkuntzaren artean alemana eta ingelesa polito zekizkiena, abertzalea izatea? Bidaiek eta hizkuntzen ezagutzak zure herriarekiko eta euskararekiko maitasuna lausotu barik, handiagotu egiten zizula esan zenion,



antza, munduan diren herrien izatearekiko begirunea areagotzearekin batera. Bistan da bizipen hau kontatzean ez zinela zure jakinduriarekin harrotzen, zure herriarekin berarekin baino.

Euskara zure hautua eta bizi-arnasa izan zen gazte-gazterik, eta halaxe izan da hil arteko orenera arte. Burura datorkit *Urkidian* zehar zure elaberria oparitu zenidanekoa, artean labetik bero-bero atera berria zela. Egunokaz eskaintzaren lerro zainduetan pausatu ditut berriro begiak: *"Euskararekiko maitasun amankomunaz, geratzen zaigun salbabide bakarraz"*.

Deustuko lagunartera Kepa eta Pablo inguratuko ziren laster, baita Carmen ene emaztea ere. Memento on askotxo bizi izan genituen harrezkero, Turtziozen zela, zure pisuaren inaugurazioan zela,... Emaztea eta biok Trebiñu aldera aldatu ostean ere, behin baino gehiagotan etorri izan zarete gurera. Ikustekoa zen zu lako *urbanita* bat mendiaren puntan galdutako herrixka honetan! Beste hamaika gauzatan legez, Trebiñuko kontuen gainean ere jakin-min asegaitza zenuen, eta zure itaun guztiei erantzuten ahalegintzen nintzen, nekien ondoen.

Duela urte bi, Santurtziko udaletxean, Euskaltzaindian sartzeko irakurri zenuen hitzaldia ondorengo berba hauekin amaitu zenuen: *"Bada ordua geure barruan begira dezagun, eta kanpolarrosak izan gabe, ezpada errukior eta harrokeriarik gabe heriotzaraino bizi gaitezen, geure ahaleginez jakintsuago bihurtuz, eta segurtasunarekin apal-eta xalotasunean dugula mundu erkin honetan bizi garen bitartean zoriontasunaren itxaropen bakarra"*. Berbok bizitzan norabide eta heriotzan helmuga izan dituzu. Nekez aurkituko dugu epitafio hoberik. Halandaze, Andolin, bizi-bizirik egongo zara maite zaitugunon oroimenean, gutxienez gu ere mundu erkin honetan bizi garen bitartean.

ARABAKO SOS ARRAZAKERIA

13 HILABETE KALE GORRIAN

Gogoratu egin behar da 2003ko martxoaren 11n gure egoitza gure borondatearen kontrako gertaera batzuen erruz kaltetu egin zela, beren ondorioak oraindik agerian daudela (Gasteizko Udaleko ur hodian -AMVISA- hausturak eragindako uholdeen ondorioz), eta konponketa lanek luze joko dutela.

Horren ondorioz, artxiboko dokumentazioa, tramitean zeuden lanak bai eta kontsultakoak ere suntsituta geratu ziren. Zehazki, atzerritarrekin zerikusia zuten 4.632 espediente eta hamabost urteetan egindako lan guztia suntsituta geratu zen. Horrela, gure erantzukizuna izan ez zen gertaera baten erruz, hasiera puntura bueltatu ginen. Hutsetik hasi behar izatera.

Soberan dago esatea, gogoraztea eta erakustea, guri dagozkigun lan arloetan jarduteko borondatea -inmigrazioa, xenofobia eta arrazakeria- suntsiezinak direla, eta gure jarduerak aurrera jarraitzen duela baldintza okerrenetan -kale gorrian-, etorkinen gizarte bazterketaz arduratzeko erantzukizuna dutenen interes falta eta ahanzturaren aurrean. Horrela dira gauzak eta horrela hartzen ditugu. Ordea, ez dugu ahazten gizarte alorreko edozein esparrutan jarduteko ardura dutenak, erantzukizun larri horiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak dituztenak eta aurrea hartzeko gaitasuna dutenak instituzio publikoak direla.

Gisa berean, azpimarratu egin behar da Plaza Publikoan HAMAHIRU HILABETEZ jardun eta gero, beroa, hotza, euria ala haizea egon, gaur egun arte 1.637 atzerritar espediente ireki direla. Orora, 3.620 kontsulta izan ditugu. Horixe da egia, ez beste bat. Hori guztia, gainera, azpiegitura egokirik gabe, idazteko materialik gabe, artxiborik, fax-ik edo helbide elektronikorik gabe... Baina bai atzerriko zein bertako pertsonen laguntzarekin, etorkinen bazterketa-arazo larrien aurrean Arabako Sos Arrazakeriaren ekarpenak beharrezkoak direla uste dutenen laguntzarekin.

Horri guztiari gehitu egin behar zaio udal dekretuaren bidez gure egoitzan izena emanda zeuden 638 etorkin erroldatik kendu zituela PPK iragan abuztuaren 8an (Alfonso

Alonso alkatea atzerritar arloan politika atzerakoi eta erreakzionario baten buru denaren isla). Modu horretan, pertsona hauek dituzten integrazio arazoak are eta gehiago suntsituz eta osasun laguntzetarako aukera eta adin txikikoen eskolaratzea ukatuz, epe ertainera begira nahiko egoera iluna ikus daiteke. Haatik, gai honetan (beste batzuetan bezala), ez dugu borroka galdutzat ematen, azken hitza Justizia Epaitegiek izango baitute.

Bada alde baikorrik, hala ere: Gertaera lotsagarri hauen aurrean Gasteizko 28 gizarte erakundek, politikarik eta sindikatuk Elkartasun Erroldatzea izeneko kanpaina abiatu dute. Kanpaina horrek bi xede ditu: batetik, gizarte zibilak Udal politika erasotzaile eta arrazista batek eragindako zauriak osatzea jakin badakiela erakustea. Eta bestetik, bere oinarritzko eskubideak urratuta dituzten pertsonen tokia egitea adibide gisa eta hiri ireki baten moduan saldu nahi den hiri baten barruan.

Edonola ere, antolaketa eta inmigrazioak pairatzen dituen bazterketa arazoei dagokienez, konpondu beharreko arazoak ugariak dira. Udalaren gizarte zerbitzuak baztertzailerak dira. Baztertu egiten dute. Ez dituzte pertsona hauen oinarritzko arazoak konpontzen. Kale gorrian lo egin behar duten familiak egon badaude. Jatekorik ez dutenak ere. Errealitatearen beste aurpegia da. Nahi gabe eramaten gaituen errealitate bat da, eta soluziobiderik ez duena. Ez dago inolako baliabiderik, ez ekonomikoak, ezta beste gisakoak ere. Soilik, ahaztuak, baztertuak eta gaizki tratatuak diren pertsona eta elkarte batzuei sentsibilitate eta berotasun apurra emateko borondatea dago.

Nolanahi ere, ez gara ezertaz damutzen. Plaza publikoan jarraituko dugu, bai bederen indarrak dauden bitartean, eguraldiak laguntzen duen bitartean, etorkinek eskatzen duten bitartean eta auzitegiek erabateko ezbeharrak egoera batean diruz lagundu daitekeen ala ez erabakitzen duten bitartean. Itxaropena ez dugu galdu. Eta halaxe jarraituko dugu.

FEDE GARCIA.

itzulpena: GEU

Itxura, edertasuna eta gorputza zaintzea egungo gizartearen ardura bilakatzen ari da gero eta gehiago. Batetik, kirola praktikatzea gustuko dutenak daude. Bestetik, ordea, helburutzat soilik itxura zaintzea dutenak. Dena dela, kirola egitea osasuntsua da erabat, ez bakarrik fisikoki, baita osasun mentalari dagokionez ere. "Mens sana in corpore sano".

• • • • •



Miriam, ikaslea

1. Bai, baina ez dut urte osoan egiten, garaiazen arabera. Kirola egiten dut gustatzen zaidalako, baita sasoi onean mantentzeko eta aktiboago sentitzen naizelako ere.
2. Ongizatea. Adibidez, hiru orduz kirola egin ostean, hobeto sentitzen naiz egun osoan.

Olatz Urbina, ikaslea



1. Egia esan, nahiko gutxi. Denbora izatekotan, gimnasia joan ohi naiz gustatzen zaidalako.
2. Kirola egin ondoren, gustura sentitzen naiz.



OSASUNA ETA KIROLA

1. Kirola egiteko ohiturarik al duzu? Zergatik?
2. Zer ematen dizu kirolak?

Ane, ikaslea



1. Ez, ez daukat denborarik, baina normalean mendira joaten naiz asteburuetan.
2. Osasunarentzat ona da eta gainera hobeto sentitzen naiz nire buruarekin.



Amaia Bakero, ikaslea



1. Bai, batzuetan aerobika egiten dut, sasoi onean mantentzeko, betiko kontua.
2. Osasunerako onuragarria da eta gainera gustatzen zait kirola egitea.



Araba bixotzian

Jon Zubiaur



RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA idazlea:


“Poesia munduko errealitatean sakontzeko modu bat da”

- Koldo Izagirrek esanda da obra laburreko poeta zarela, baina kanon propio bat sortu duzula. Ados zaude?

Berak esaten duena asko esatea da. Ez dakit... agian ildo bat badu nik egiten dudan poesiak, baditu ezaugarri batzuk. Alde horretatik igual bai, baina niretzat hori gehiegi esatea da. Egia da pozten zaituela horrelako gauzak entzuteak, baina... auskalo hurrengoan zer egiten dudan, eta zer dioten!

- Zuri zerk bultzatzen zaitu poesia idaztera?

Nik uste dut 15-16-17 urte tarte horretan jende askok idazten duela poesia. Ni ere garai hartan idazten hasi nintzen, eta jendeak denborarekin uzten badio ere, nik segitu nuen gustukoa nuelako eta nolabaiteko gozamena sentitzen nuelako hori egitean.



Rikardo Arregi idazle gasteiztarrarekin poesiak mintzatu gara. Poesiaren zentzuaz, funtzioaz, orainaz eta etorkizunaz. Poesia idazten gozatzen duela aitortu digu Arregik, baina amesteko modu bat bainoago, “errealitatean sakontzeko” modu bat dela irizten dio. Berarekin errealitate horretan murgiltzen saiatu gara solasaldi honetan.

RIKARDO ARREGI

- Zergatik poesia, eta ez eleberri bat, adibidez?

Iruditzen zaidalako askozaz narratiboagoa izan behar duzula narraziogintzan, argudioak asmatu egin behar dituzulako. Eta hori poema bat idaztea baino askoz zailagoa iruditzen zitzaidan.

- Zertarako idazten duzu?

Nire buruarekin ongi sentitzeko, gustuko dudalako, plazerra lortzen dudalako. Eta noski, suposatzen dut niri beste idazleek egiten dutena gustatzen zaidan moduan, norbaiti ere gustatuko zaiola, agian, nik egiten dudana.

- Zerk iradokitua idazten duzu? Inguruan giro berezirik behar al duzu idazten hasteko?

Nire ustez idaztea nahiko kontrolaezina da, egon naiteke giro nahiko *kutre* batean, hipermerkatuan esaterako, eta hor zeozer bururatzea. Eta aldiz, paraje idiliko batean egon naiteke, eta ezer bururatu ez. Ideiak edo burutazioak etortzen zaizkit egunean zehar, garai batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago... gero beste kontu bat da da hori guztia antolatzea eta idaztea, eta horretarako behar duzu mahaia, papera, boligrafoa...

- Poesia etorkizunaz kargaturiko arma bat da, zioen Gabriel Zelaia. Euskal poesiak etorkizunik ba al du?

Egingo den neurrian etorkizuna izango du. Nik pentsatzen dut nik hil arte izango duela, nik irakurriko dudalako eta noizbait idatziko dudalako. Beraz, beste gauza guztiek bezala etorkizuna baduela uste dut. Agian minoritarioa da, baina gauza asko dira egun minoritarioak...

- Eta gaur egun, nola ikusten duzu euskal poesia?

Denetarik dagoela uste dut, liburu asko daude. Irakurleak badu aukera bat, liburutegira joanez gero han duzu azken hamar urteotan egindakoaren artean zer aukeratu, eta oso estilo desberdinetakoa gainera. Irakurlearen ikuspegitik badago aukera bat.

- Hala ere, oro har esan daiteke poesiak ez duela beste literatur genero batzuk bezainbeste zale. Akaso, poesia ulertzea zailagoa delako?

Bai, jendeak baditu aurreiritzi batzuk poesiarekiko. Gehienek uste dute poesia gauza biguna dela, sensible bat... Baina bakoitzak bere aurreiritziak ditu. Beste batzuek ez dituzte ipuinak irakurtzen, esaterako, iruditzen zaielako gauza serio bat irakurtzeko eleberri bat irakurri behar dela. Finkatuta dauden aurreiritzi horien aurka jotzea zaila da.

- Poesiak gaur egun funtzio sozialik betetzen duela uste duzu?

Gauza guztiek dute funtzio soziala, ezta? Gizakiok egiten ditugun gauza guztiek funtzio soziala betetzen dute guztiok garelako sozialak eta elkarrekin bizi garelako. Parkeek, kotxeek, poesiak... bakoitzak bere esparruan funtzio soziala betetzen dute. Baina Zelaia esaten zuen poesiak gizartea eraldatzeko ahalmena zuela. Hori zailagoa iruditzen zait. Asmo handiegia iruditzen zait poesiarako. Ez dakit zergatik aldatu behar duen poesiak gizartea, igual da genetikak eraldatuko duena. Poesiari horrelako boterea aitortzea gehiegi iruditzen zait. Hain gauza xume bat ez dut uste hain boteretsua izan daitekeenik gauzak aldatzeko.



RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA

Rikardo Arregi Gasteizen jaio zen 1958an. Psikologia eta maisu ikasketak egin zituen Salamancan, eta Euskal Filologikoak Gasteizen. Lanbidez, institutu irakaslea da, euskara eta literatuta alorrean. *Euskaldunon Egunkarian* eta *Hegats* aldizkarian argitaratutako artikuluekin, poema-bilduma bat plazaratu zuen: *Hari hauskorak* (Erein, 1993). Liburu horrek urte hartako Kritika Saria jaso zuen. Bost urte geroxeago, *Kartografia* (Alberdania, 1998) poema liburua argitaratu zuen. Egun *Arabako Egunkarian* zutabegile moduan ere irakur dezakegu.

- Ihes egiteko modua izan al daiteke poesia?

Batzuetan izan daiteke mundutik ihes egiteko modua, baina batzuetan mundutik ihes egin nahi izate horretan munduan gehiago sartzen zara. Batzuetan ihes egiten duzunean kanpotik egiten duzu ihes, baina funtsean gauzak barrurago dastatzen ari zara. Akaso, kanpotik eman ahal du hori, baina kontrakoa iruditzen zait: poesia munduko errealitatean sakontzeko modu bat da.

- Nondik datorkizu poesiarekiko zaletasuna? Zeintzuk poetagileengandik edan duzu?

Hasiera-hasieran Luis Cerduna asko gustatzen zitzaidan. Euskal literaturan Sarrionaindia, Atxagaren lehen liburua... Poeta polakoak ere gustuko ditut.

- Gaur egungo euskal poesiak non du abiapuntua zuretzat?

Guztion hasiera Gabriel Aresti da. Badira aurrekoak ere, baina guretzat aita Aresti dela esan daiteke.

- Errealitatean oinarrituta idazten duzu beti?

Bai, noski, nire bizitzan oinarritu behar naiz, nire buruan. Hau da nire erreferentzia-puntu oinarritzkoena, bakoitzak berea dauka. Ni eta mundua, munduan bizi naizelako.

- Zure bizipenak kontatzeko erabiltzen duzu poesia?

Nire bizipenak eta besteenak ere. Zuk bizitzen eta ikusten duzuna ere inportantea da.

- Bukatzeko, etorkizunari begira proiekturik ba al duzu? Noiz ikusiko dugu Rikardo Arregiren beste liburu bat kalean?

Gustatuko litzaidake beste liburu bat idaztea, eta ari naiz zerbait egiten. Baina nik oso poliki egiten ditut gauzak.



"50. HAMARKADAKO GLAMOURRA ETA DOTOREZIA BUELTAN"

moda & tendentziak 04

josune verez de mendizabal

argazkiak: QUINTAS (pasarela) / edorta

Eguraldiak laguntzen ez badu ere egutegiak eta dendetako erakusleihoek udaberria heldu dela diote. Oihal finak, zapata irekiak, tirantedun kamisetak eta kolore bizi-bizirik nagusi, urtero legez neguak larruzko jertse potoloak atzean uzten ditu, batzuetan gure hirian moda aldaketa hau goizegi ematen den arren. Udaberri-uda honetan 50. hamarkadako glamourra eta elegantzia bueltan ditugu. Soineko panpoxoak, puntadun zapaten punta borobilduko da eta eguzki betaurreko handi-handi horiek ere ikusiko ditugu gutxienez azken puntako arropetako katalogoetan. Tendentzia hauek guztiak minigona eta pirata ausartekin nahastuko dira, koloreen intentsitate ezberdinek talka egingo duten bezala. Arropa ez dela inoiz modaz pasatzen ere esan ohi da eta atzera egiteak esamolde hau egia dela baieztatzen du.

HORIK AHO

11



Moda ikuspuntu askotatik aztertu eta eztabaidatu daiteke, baita kritikatu ere. Janzkerak, tendentziak, modernoa edo ipingaria dena ez dira beti sinonimoak, baina nahitaez guztiok gaude, azken finean, diseinatzaile eta azken tendentzien eraginaz kutsatuak. Biluzik behintzat ez gara ateratzen kalera.

Dolce Gabbana, Armani, Prada, Versace, Maximo Dutti,... horien eskaintza akaso ez dator bat gaur egungo soldatekin, baina sarri tendentziak izen handiko diseinatzaile hauek markatzen dituzte, nahiz eta modak ez duen zertan hori izan. Izan ere, gure artean arropa eta osagarriak burutzen eta ekoizten

dituzten lagunak ere badira. Oraindik euren izenak oso entzunak ez diren arren, diseinatzaile berri hauek gogoz jotzen dihardute mundu zail honetan, moda ere horien esku baitago.

Ana Aracama eta Susana Perez Gasteizen egun diren diseinatzaile berri horien artean daude. Euren buruan zituzten ideiak hezurmamitu nahian diseinu ikastaroa egiten hasi ziren eta egun euren ametsa, neurri batean bada ere, gauzatu dute. "Nik neuzkan ideiak eginak ikusi nahi nituen beste pertsona batengan", dio Susanak. "Ideietan gera ez daitezen, behintzat saiatu nahi nuen", bat dator Ana,



Ana Aracamaren diseinua

Estilo ezberdinak lantzen badituzte ere, gazte hauek garrantzizkoa ikusten dute moda "ipingarri" egitea, "nahiz eta gero pasareletan gehiago apaintzen dugun arriskatuagoa izan dadin", onartzen dute. Ana Aracamak lehenengoz erakutsi du emakumezkoarentzat prestaturiko bere bilduma eta zorte handia izan du bertako denda batek bere diseinuengatik interesa agertu duelako. "Nik egiten ditudan arropak nahiko komertzialak dira, hots, edozein dendatan sal daitezke. Originaltasuna agian lantzen dudan oihalean dago, jutea edo zaku-oihalean alegia, -dio Aracamak. Material hau ikertu dut eta estanpatua, tindatua, zimurtuta, eskuz josita eta birukatua aurkeztu dut". Martxoan Gasteizen antolatutako moda pasarelari esker Anari Glamm dendak erosi egin dio arropa-bilduma, zeinarekin benetan pozik dagoen. Susanak diseinatu duen azken arropa-bilduma aldiz, erronka handia izan da berarentzat: "Gauza erraza izango zelakoan, aurreko desfileetarako erabili ditudan oihalean zatiak hartu nituen eredutzat eta horiek guztiak josi ditut jantzi berean -azaltzen du hamar urtez diseinatzaile lanetan dabilen gazte honek. Zeta, kotoia, estanpatuak eta oihal zati lisoak josi ditut urre koloreko hariak. Oso bilduma barrokoa eta dotorea geratu da".

diseinatzaileak

GASTEIZKO MODA PASARELA 04:

Ana Aracama lehena;
Susana Perez bigarren



Ana Aracama



Susana Perez

**TENDENTZIEN-PASARELA.
UDABERRIA-UDA'04**

(GASTEIZ ON & UNIMODA-ARABAKO EHUNGINTZA BATZA).

**DISENATZAILE
PARTEHARTZAILEAK**

- Ana Isabel Espina eta Milagros Lastra
- Maider Arriaran
- **Ana Aracama** (irabazlea)
- Ainhoa Sarasua
- Cintia Robles
- M^{re} Carmen Fdz. Carames
- Ricardo Cardenas
- **Susana Perez** (bigarrena)
- Ivan Vaz



Susana Perezen diseinua

-Non daukazue lantegia?

-Buff... etxeko logelan eta egongelan (barre egiten dute). Guri benetan gustatuko litzaugukeena diseinatzaileak izatea litzateke, baina memento horretaz gain, jantzi-egile eta komertzialak ere bagara. Hortaz, batzuetan ohea edota mahaia ez ditugu aurkitzen, eta oihalak gainetik kentzen ibili beharra daukagu lo kuluxka bat bota edota jateko. Dena den, zortea daukagu M.Clàss akademian lekua uzten digutelako.

-Hortaz, nola egin ohi dituzue salmentak?

-Pasarelak horretarako aukera bat dira, hortxe baitago erakusgai gure lana, izan ere, guk ez baitaukagu dendarik, ezta guk egindakoa non erakutsi ere. Horregatik, animatzen dugu jendea guregan konfiantza izan dezan; beraiek pasarelan ikusten dituzten gauzak gustuko izanez gero guk euren neurrira egingo dizkiegu eta are gehiago, euren gorputzeko zati ez gogokoak estaliz.

-Zein irizpideren arabera jartzen dizkiezue salneurria?

Hori bai dela benetan zaila. Batetik, materialaren kostua baloratzen dugu, eta hori neurri batean erraza izan daiteke, baina benetan zaila suertatzen dena da jantzi horretan erabili duzun denbora eta esfortzua neurtzea, horregatik balitz askoz ere garestiago litzateke.



Palencian jaioa, eta Mirandara egunero lo egitera joan arren, Gasteizen aritu da batik bat bere bizitza osoan Sara Gregorio Roldan 21 urteko aurtengo Miss Euskadi irabazlea. 1,74 cm-ko altuera duen neska horaila honek kirola du bere zaletasunen artean gustukoenetariko bat. “Azkenaldi honetan arrantza egiten ere hasi naiz”, dio barre eginez, “eta oso erlaxagarria da, benetan”. Hitztuna eta alaia, Miss Araba 2.003 eta Miss Euskadi 2.004 tituluak bereganatu ditu eta Miss Espainiako lehiaketan partaide izan da. Honatx moda munduan gazte honek duen esperientzia:

-Nola eta zein arrazoiagatik erabaki zenuen modelo lanetan hastea?

Gasteizko M.Class akademian -Txairoki zaharra zena- hasi nintzen modelo ikastaroa egiten 16 urte nituenean. Urte batzuk modelo lanetan ibili eta gero utzi nuen nire goi-mailako ikasketak bukatzeko asmoz. Orain erizaintza bukatu dudala berriro errekuperatu dut modelo lana. Izan ere, erizaintzan ez dago lan finkorik eta langabezian nagoen bitartean hau oso ondo datorkit.

-Zerk bultzatu zintuen ikastaro hori egitera?

Beno, egia esateko, nik ez nuen oso argi ikusten baina familak batez ere oso aurpegi potxoloa neukala eta balio nezakeela esaten zidan, tipikoena, ezta?

MISS ARABA'03 - MISS EUSKADI'04:

SARA GREGORIO ROLDAN

Badakizu, familiarentzat itsusia edo *guapa* izatea berdin dio, beti ikusiko zaituzte begi onekin. Hori dela eta, animatu ninduten. Bestetik, nire laguneei oso arraroa egiten zaie ni Miss Euskadi izatea, izan ere, beraiek ondo ezagutzen naute eta badakite oso neska xaloa naizela, eta ez naute mundu honetan imaginatzen.

-Miss Araba 2003 eta ondoren Miss Euskadi 2004, sorpresa?

Bai, baina oso ondo eta oso gustura hartu nuen. Ez nuen espero... Agian Araban neska guxtiago izanda, hamaika orotara, aukera gehiago zeuden. Miss Euskadikoa aldiz, ez nukeen sekula esango eta negar-zotinka aritu nintzen...

-Miss Espainia-n ere izan zara.

Oso jarraian izan da dena, Miss Euskadi-tik Miss Espainia-ra asteburu bateko epea dago. Egin dudak ikastaroari esker beste neska batzuk baino prestatuagoa nengoen. Hara ibiltzen jakin gabe doanak ahal dezakeena egiten du eta hori nabaritu zen...

-Aurten ere Miss Espainia lehiaketaren inguruan iskanbila sortu da, zer deritzozu?

Helburu zehatz beragatik lehian dauden 52 neska gara guztira eta denetik aurki daiteke... Nolanahi ere, ni ezin naiteke ezertaz kexatu, oso oroitzapen onak ditut eta lagun onak egin ditut, ni gustura ibili naiz... ez dut oso ondo ulertzen orain gertatzen ari dena....

-Miss Elegancia ere izendatu zintuzten Miss Euskadi lehiaketan, nola zbiltzan!

Bai, (barre egiten du)... gainera Miss Espainia-n babesleek sari bat banatzen zuten missen artean eta Miss Evatour hautatu ninduten eta Mexikora joateko bidaia irabazi dut...

-Eta noiz joango zara?

Oraindik Miss Espainiako antolakuntzarekin hitz egin behar dut... ikusiko dugu, baina munduko emakumerik zoriontsuena egin naute sari honekin.

-Dena etorri zaizu jarraian, ezin hobeto, ezta?

Bai... izarra izan dut nire ondoan mementu oro.

-Eta orain?

Nik nahi nuen erizaintza eta moda mundua osagarri egitea, baina orain zaila ikusten dut. 21 urte ditut eta gogoia daukat txanpa hau aprobetxatzeko eta modaren munduan aritzeko... ea zer sortzen den, bestela beti izango dut nire karrera, izugarri gustatzen zaidana. Miss Euskadi izatean aukera gehiago daukat Gasteiztik ateratzeko, eta akaso Madrilera joango naiz zortea frogatzera, ea zer aurkitzen dudana.

DI-DA

-Desfilatzen zein arroparekin sentitzen zara eroso?

-Miss Espainia-ko lehiaketa adibidetzat hartuta bertan ez dago desfilatzeko eroso den arroparik. Bainujantziarekin ez zoaz eroso, gaueko soinekoarekin, ezta... Hortaz, bakeroak hautatzen ditut.

-Kalerako berriz, zer nahiago?

Bakeroak ere bai, oso xumea naiz janzteko orduan...

-Zure aurpegia ezaguna izateak ere etxetik ateratzeko orduan prestaketa berezia eskatzen al du?

...Berez, bai baina... nik nire bakeroekin jarraitzen dut (barre egiten du), gainera jendeak ez zaitu beti ezagutzen. Nik nire ohiko bizitza egiten jarraitzen dut.

-Zure gorputzeko atalik politena?

Ez nuke ezer nabarmenduko... agian nire begiak, ez daukate kolore bereziki polita baina forma gustuko dut.

-Eta itsusiena?

(baxu-baxu komentatzen du) oinak...


-Txikitan zer izan nahi zenuen?

Irakaslea.

-Eta helduagoa zarenean?

-Erizaina.





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

SARTU
Zure arropa eta oinetakoa!
www.sartuenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BEERRAL
TABERNA
Egurditan, asteleneratik ostiralean
JANTOKI
BEGETARIANOAK
SAN KRISTOBALEKO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

vitrales
BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
MIKEL
DELIKA

HEGOALDE
Euskalategia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

EAJ
PNV
Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!

IRYSTA
TABERNA
poteo eta pintxoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA
Sagardotegia
Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO
OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAOKAK ETA MERIENDAK

Argazki - Estudioa
Erramun
Hecacho Euzkier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

Dalvez
argitaratzaileak
maketazioa
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa: 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net
diseinua

BAR
KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

SEI URTE ETA GERO,

erreportajea


GA
AIKA

1.646. urtean eskatu zuen aurrenekoz Trebiñok Araban sartzea, XV. mendean Gaztelako agintariek Arabatik bereizi zutenetik. Ordutik hona trebiñarrek aldarrikapenari eutsi egin diote behin eta berriro. Burgostik banandu eta Araban sartzeko azken eskaera duela sei urte egin zuten trebiñarrek, herri-galdeketa baten bidez. Alabaina, erabaki demokratiko hura posible egin zuten udal akordioak baliogabetuta daude egun, eta beraz trebiñarrek Gaztela eta Leongo administrazioaren menpe jarraitzen dute, euren borondatearen kontra. Juan Carlos Aguillo Trebiñoko alkatearekin eta Alfredo Oraa Argantzungoarekin egungo egoeraz mintzatu gara.

DEMOKRAZIARIK EZ TREBIÑON

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz



Alfredo Oraa, Argantzungo alkatea

Trebiñoko barrendegian egindako herri-galdeketa seigarren urteurrena bete da aurten. Ezin esan ospatu denik, trebiñarrek 1998ko martxoaren 8an erabakitakoa ez delako oraindik errealitate bilakatu. Duela sei urte Trebiñoko Udalen ekimenez egindako herri-kontsulta hartan 705 lagunek parte hartu zuten (hauteskunde errolda 919 lagunek osatzen zuten), eta galdera bakar bati erantzun egin zioten: Trebiño Araban sartzearen aldekoak ziren ala ez. 477 pertsonak baiezkoa erantzun zuten, 221ek ezezkoa eman zuten, bik boto zuria eta bost boz baliogabeak izan ziren. Eraitza argia eta irmoa izan bazen ere, trebiñarren nahia ez zen errespetatu, eta gaur egun oraindik Burgosen menpe jarraitzen du barrendegiak.

Gainera, herri galdeketa traba franko gairatu behar izan zituen, artean Espainiako Gobernuaren debekua eta Guardia Zibilaren partehartzearen mehatxua ere egon zirelarik. Hori




gutxi bailitzan, gerora, herri galdeketa hura posible egin zuten udal akordioak baliogabetu egin zituzten.

Hartara, herri-kontsultaren seigarren urtemugak zapore gazi-gozoa dauka bertako biztanleentzat, baita Trebiñoko alkate Juan Carlos Aguillo eta Argantzungo Alfredo Oraarentzat ere. Urteurrenaren iritzia eskatzerakoan, biek ala biek erantzun bera eman dute: "Gabezia demokratiko itzela dago egun". Izan ere, euren irudiko, Trebiñoko afera gai "korapilatsua" da politikarientzat, eta nola edo hala saihestu egiten dute gaia sakonki aztertzea.

Hori dela eta, maiz Trebiñoko auzia hauteskunde etekinak ateratzeko erabiltzen dela salatu dute, azken hauteskundeetan gertatu legez. Halaxe ikusten du, bederen, Aguillok: "Liskar gai gisa erabiltzen gaituzte, eta gure kontura etekinak ateratzen saiatzen dira". Hauteskunde garaia pasa eta gero, oster, eurentaz ahaztu egiten direla salatu du Trebiñoko alkateak: "Ez dute egiten behar den adina, eta erabilera politiko hutsa egin ohi dute sarritan". Lau urtetan behin Trebiñoko gaia mahai gainean egotea, hala ere, zerbait badela irizten dio Argantzungo alkateak, hor daudela eta arazoak bere horretan dirauela gogoratzeko, behinik behin.

"Aitzakiak" eta blokeo egoera

Gaztela eta Leondik bereizteko borroka ez da samurra izaten ari, eta bidean eragozpen ugari topatzen ari dira Trebiñoko herritarrak. Traba nagusienetakoa Gaztela eta Leonek jartzen du, bere Estatutuan jasotzen duen xedapen iragankorraren bitartez. Bertan adierazten da Trebiñoko eta Argantzungo Udalen zinegotzien bi herenek Burgostik bereiztea eskatu behar dutela, banantze prozesua abiatu nahi bada. Iazko udal eta foru hauteskundeetan gutxiatik



ez zen kopuru hori lortu, eta beste behin ere ametsaren atarian gelditu ziren Trebiñoko biztanleak. Haatik, trebiñarrak kritikoak dira oso baldintza horrekin, uste baitute "aitzakia" hutsa dela trebiñarren erabakiak ez errespetatzeko.

Gaztela eta Leongo Gobernuak afera honetan "betoa" duela salatu du Aguillok, oso zaila ikusten baitu gehiengo hori lortzea bi Udaletan. Oraa ere iritzi berekoa da: "Aitzakia dela uste dut, hori lortuta ere, Gaztela eta Leongo Juntak aldeko txostena egin beharko lukeelako, eta ezetz esango balu, berdin geundekeelako...".


Edonola ere, auziaren konponketari begira gaur egun Gaztela eta Leongo Gobernuaren, Trebiñoko Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketak etenda daudela kontuan izaki, arazoak

dut uste funtsean gehiegirik aldatuko denik...", gaineratu du Argantzungoak.

Eusko Jaurlaritzaren Estatutu politiko berriak aferari irtenbidea emango dionik ere ez dute uste alkateek. "Gauzak dauden moduan uzten ditu eta irtenbide posible bakarra Estatutuen gainetik legokeen legea egitea litzateke", iritzi dio Aguillok.

Nolanahi ere, Trebiñokoa aldarrikapen politikoa ez ezik, eguneroko bizitzan eragin handia duen afera ere bada, zerbitzuetan, hezkuntzan, osasunean eta beste hainbat alorretan Burgosen menpe daudelako. Hartara, trebiñarren erabakia errespetatzen ez den bitartean, bide bakarra dute bertako biztanleek: lanean jarraitzea demokrazia Trebiñora hel dadin.

PANKARTEN GORA BEHERAK



Juan Carlos Aguillo, Trebiñoko alkatea

Azken boladan beste traba bati aurre egin behar izan dio Trebiñoko Udalak: Udaletxearen aurrealdean esekitako pankarta bi kendu behar izan ditu Estatuko Administrazioak aginduta. Duela bi urte *Demokrazian Trebiño Araban* zioen pankarta ezartzea eta errotulazioa elebiduna egitea erabaki zuen Udalak, baina epai batek pankarta kentzeko agindu zien. Erabakiari helegitea jarri zion Trebiñoko Udalak, eta ostean Auzitegiak arrazoia eman zien.

Baina, ebazpena atera artean, beste erabaki bat hartu zuen Trebiñoko Udalak. Hain justu, iazko otsailaren 21ean, herri galdeketa ospatzeko osoko bilkurá berezia egin zuen Udalak, eta bertan, berretsi egin zuten trebiñarrek Araban sartzeko duten nahia. Era berean, *Burgoskoa indarpean* zioen pankarta jartzeko erabakia hartu zuten. Alabaina, bi hilabete geroxeago, Espainiako Gobernuak Burgosen duen Ordezkaritzak bilkura horretan hartutako erabaki guztiak bertan behera uzteko eskaera igorri zion Trebiñoko Udalari. Ostean, gainera, hartutako akordio horiek guztiak behin-behinean bertan behera uzteko eskatzen zuen helegitea ezarri zuen Estatuko Administrazioak.

Horiek horrela, Trebiñoko Udalak erabaki berri du atzera ere duela bi urte jarritako pankarta jarriko dutela eraikinaren aitzinaldean (*Demokrazian Trebiño Araban* dioena), eta espero dute berriro ere kendu behar ez izatea, uste baitute legea ez urratzeaz gainera, inori ez diola kalte egiten halako leloa erabiltzeak.

edurne begiristain

argazkiak: hikaateneo / garbiñe ibargutxi



HIKAATENEOko EZTABAIDAGUNE FORO EUSKALDUNA

Orain arte Gasteizen egon den hutsune bat betetzeko helburuarekin sortu da Hikaateneo-ko Eztabaidagune Foro Euskalduna. Hain justu, euskarari merezi duen tarte eta garrantzia emateko gazteleraz egin ohi diren hitzaldi, mahainguru eta bestelakoak aldiro euskaraz antolatzea du xede Foro Euskaldunak. Izan ere, duela bi urte eta erdi Hikaateneo sortu zenetik, euskararen presentzia ez da oso handia izan antolatutako jardueretan, gehienetan gaztelerara jotzeko joera egon baita. Egoera horretaz jabetuta, lagun talde batek erabaki du “programazio alternatiboa” egitea Hikaateneo-k berez prestatzen duen egitarauaren barruan.

Hala, hilean behin edo hiru hilean bitan ekitaldiak gure hizkuntzan eskainiko dituzte Hikaateneo-n. "Uste dugu badela unea euskarak tarte iraunkor bat izateko gurean", adierazi digu Eztabaidagune Foro Euskaldunaren sustatzaile den Iñaki Lazkanok. Ekimenaren xedea euskara bultzatzea bada ere, Iñakik argi utzi nahi du ez dutela euskararen inguruko eztabaidarik egin nahi, edozein gai euskaraz lantzea baizik.

Idea hori abiapuntu hartuta, urtarilean ekin zioten Hikaateneo-koek euskarazko hitzaldiak eskaintzeari. Hilabete horretan, hain justu, euskararen egoeraren inguruko mintzaldia eskaini zuen Kontseilua elkarteko prentsa arduradun Koldo Castañedak. *Euskararen aldeko konpromisoak* lelopean, Kontseiluak hizkuntz eskubideen alde abiatutako kanpainaz mintzatu zen Castañeda. Iñakiren irudiko, hitzaldi hura "ongi uztartzen" zen ekimenaren xedearekin, finean "eztabaidagune erdaldun batean euskal kutsua sartzeko aukera ematen baitzuen".

Martxoan, berriz, gerra izan zuten hizpide. Izan ere, Irakeko inbasioaren urteurrena bete zela aitzakia hartuta, Javier Barandiaran Komite Internazionalista erakundeko brigadistak eta Jon Arregi Gerrarik Ez plataformako kideak gudaren inguruko ikuspuntua eskaini zuten. Barandiaranek, Irakeko gerraren inguruko filminak erakutsi zituen, gudak gizarte zibilarengan eragiten duen kalte latza islatzeko. Arregik, berriz, gerren inguruko hausnarketa sakona eskaini zien bertara hurbildutakoei. Iñakik aitortzen du bi eztabaida horietan nabaria izan zela jendeak euskaraz eztabaidatzeko "zailtasunak" dituela, batik bat gaiak sakonak direlako. "Hala ere,



apurka-apurka gauzak egin behar direla uste dugu, eta guk bederen horretan ahalegindu nahi dugu", azpimarratu du.

Apirilean atseden txikia hartu ostean, maiatzean historiari tarte egingo diote Foro Euskalduneari. Hilaren 12an, Iñaki Varona euskara irakaslearen eskutik, *Vasco-Navarro trenaren burdinbide zaharra* hitzaldi interesgarria entzuteko parada egongo da. Hitzaldi honetan, XX. mendearen hasieran Bergararik Lizarrara joaten zen trenaren inguruko historia eta istorioak kontatuko dizkigu Varonak, irudi zaharrak lagunduta. Ekainean, berriz, gay eta lesbianen eguna ospatzeko, zerbait berezia egiteko asmoa dute, baina mementokotz ez digute ezer aurreratu nahi izan.

Jaio berria den ekimena izanagatik, aurrera begira pausoak emateko asmoa du Euskal Foroak. Iñakik azaldu digunez, Gasteizko

beste eragileei zabaldu nahi diete proiektua (Geu elkarteari, euskaltegiei,...), bakoitzak egin ditzakeen ekarpenekin Foroa aberastu aldera. Oro har, eztabaidagunearekiko interesa duen edonork izango du parada bere ekarpenak egiteko, eta gonbita berezia egingo zaie euskaldun berriei.



Iñaki Lazkano, foroaren eragileetako bat

Bergara-Gasteiz-Lizarra. Horixe zen Vasco-Navarro trenak XX. mendearen hasieran egiten zuen ibilbidea. Tren hark berebiziko garrantzia izan zuen garai hartan Euskal Herrian, eta bere bagoietatik pasatako lagunek hamaika istorio interesgarri eta bitxi utzi zituzten, eta haien bitartez garai hartako gizartea nolakoa zen jakiteko aukera dugu. Iñaki Varona IKaKo irakasleak trenaren historia eta istoriotxo horiek guztiak kontatuko ditu heldu den hilaren 12an



MAIATZAREN 12an - 20.00etan, IÑAKI VARONAREN HITZALDIA VASCO-NAVARRO TRENAREN HISTORIA ETA PASARTEAK

Hikaateneon: trenbidean ibilitako langileak, Arabako mendizaleen pasarteak, Gasteizko merkatuaren garrantzia, trenean egiten ziren bilera politikoak, bertan ibilitako pertsonaia ezagunen inguruko txutxumutxuak (Eduardo Dato, AmariKa, Isaac Puente, Maezturenak, ...). Varonari hitzaldiaren laburpentxo bat egitea eskatu diogu, eta berak honako pasarteak kontatu dizkigu:

MENDIZALEAK:

"Vasco-Navarro trena ezinbestekoa izan zen garai hartan mendizaleentzat. Izan ere, Gasteizko lehenengo mendi klubetarako oso baliagarria izan zen, trena mendira joateko aukera bakarra baitzen. Bertan Arabako mendialdera joaten ziren, Lautadakoek soilik Aizkorri aldera joateko aukera baitzuten. Bidenabar, erromeriek ere berebiziko garrantzia hartu zuten..."

BILERA POLITIKOAK:

"Gasteiz hirian bertan auzo-tren bilakatu zen. Izan ere, XX. mendearen hasieran mugimendu politiko eta sindikalista handia zegoen hirian, eta trena leku ona zen gauzak trukatzeko eta langileen arteko bilerak egiteko. Trena Gamarratik irten, Betoñoko lantegietatik pasa, Herrandarren kaletik gero eta Olarizutik ateratzen zen. (...) Horretaz gainera, trenak aukera eman zuen

kanpoko langileak etortzeko eta hemengoek, besteak beste, anarkismoaren berri izateko..."

DEBAGOIENENKO MANDATARIAK ('REKADISTAK'):

"Debagoieneko bailaran saltzen ez zena Gasteizen saltzera etortzen ziren. Halaber, hemen gauzak erosi eta han saltzen zituzten. 'Rekadistak' treneko langileen familiarrak ziren eta ez zuten trena ordaintzen..."

TRENAREN GAINBEHERA:

"Batik bat kudeaketa txarragatik desagertu egin zen (1967. urtean). Dela oso jende gutxi ordaintzen zuelako, dela lau katuk baino ez zutelako erabiltzen, kontua da egun batetik bestera ixteko erabakia hartu zutela. Gainera, Francoren gobernuarentzat politikoki ez zen errentagarria ezin kontrolatu zezakeelako trenean sortzen zen mugimendu politikoa..."

EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN, Añanako eskualdea euskalduntzen

Arabako Añana eskualdean ez dago ikastolarik eta euskal hiztunen kopurua ere ez da oso handia. Horregatik, egoera hau hobetzeko, eta behintzat euskara kalera atera nahian, **Euskara Añanan Mingainean** elkarteak esfortzu aipagarria egiten ari da. Euskarazko ekitaldi kultur anitz, haurrentzako ekintzak, helduentzako euskaltegiak eta urteroko jaia dira egoera honi aurre egiteko proposamen batzuk. Hurrengo hitzordua maiatzaren 15ean izango da **Langraizen, Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoen saioari esker.

Orain dela 10 urte inguru Arabako Añana eskualdeko euskaldun talde batek, beren herrietako egoera soziolinguistikoa ikusirik, Euskara Añanan Mingainean elkarteak eratzea erabaki zuen, euskara kalera ateratzea helburu nagusia izaki. Garai hartan euskarak Añanan zuen osasuna tamalgarria zen, ez bakarrik euskal hiztunen kopurua murrizta zelako, baita hurrek ere ez zutelako D ereduan ikasteko aukerarik ere. Gauzak horrela, gure hizkuntza indartzeko lan egingo zuen elkarteak sortu zen, Añana aldean euskara guztion mingainean egoten ahalegin-duko zena, hain zuzen ere.

Egun, 50 bazkide baino gehiago ditu elkarteak eta horrez gain, eskualdeko 10 udalek ere parte hartzen dute ekimen honetan, besteak beste, Langraiz, Kuartango, Erribera Goitia, Añana, Lantaron, Zanbrana edo Beranturikoak.

Euskara Añanan Mingainean elkarteak bazkide den Raul Gartzia esan bezala, "Añana aldeko euskal hiztunen kopuruari dagokionez, gorakada bat egon da azken urteotan, alabaina, ikastolen arazoa ez

da oraindik konpondu". Hau da, egun ez dago ikastolarik eskualdean eta D ereduan ikasi nahi duten umeak Gasteizko edo Izarrako ikastolara joateko beharrean daude. Beraz, egoera honen aurrean,



ezinbestekoa suertatzen da euskarari bultzada ematea.

Guztientzako ekintzak

Honela, haurrentzako ekitaldiez gain, EAM elkarteak helduentzako ekintza kulturalak ere antolatzen ditu, Añanako herrietako kaleetan gero eta euskara gehiago entzutea lortu nahian. Umeei dagokionez, ekitaldi anitz prestatzen dira urte osoan, bai eskola orduetan

zein kanpo; gaztainadak, ipuin-lehiaketak edo txangoak, esaterako. Helduentzako eskaintza ere ez da eskasa. Elkarteak antolatutako euskaltegiek edo gau eskolek arrakasta harrigarria lortu dute azken boladan. Are gehiago, "aur-tengo matrikulazio kopurua proportzionalki Euskal Herria mailan egon den altuena izan da, 100 pertsona baino gehiagok izena eman baitute", azaldu du Raulek. Hauei esker, eskualdeko herri ezberdinetako jendea biltzen da astero euskara ikasi nahian.

Bestalde, aipatzekoa da elkarteak urtero antolatzen duen Euskara Añanan Mingainean festa, betiere, eskualdeko udal guztien laguntzarekin.

Urterik urte jaia ospatzeko herria aldatu ohi da eta aurten Beranturiren txanda izango da, beti bezala, irailaren hirugarren igandean. Ekintza ugariren artean, umeentzako ekitaldiak, Añanako produktuen azoka eta pilota-txapelketa izango dira bertan. Gainera, ohi denez eskualdeko kulturaren alde lan egin duen pertsonari ere egingo zaio omenaldia. "Eskualdeko jai bilakatu da gure festa, eta beraz, ez doaz bakarrik inguruko

euskaldunak, Añanako erdaldun asko ere hurbiltzen da bertara", dio Raulek, "behintzat lortu dugu Añana aldeko erdaldunentzat euskara zerbait arraroa ez izatea", gaineratuz.

Hurrengo ekitaldia, maiatzaren 15ean

Euskara Añanan Mingainean elkarteak

antolatu duen hurrengo ekintza hilaren 15ean izango da Langraizen. Bertan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoei euskarazko saioa eskainiko dute herriko Kultur Astearen programazioaren baitan. Geu aldizkaria, Iruña Okako Udala eta Langraiz Okako Administrazio Batzarraren laguntzari esker prestatutako saioa izango da, antza denez, euskaraz eskainiko den

bakarra. "Gure nahia da jendeari, gutxienez, bere herriko jaietan programazio elebiduna eskaintzea. Hauxe da gure proposamena", azaldu du Raulek. Hitzordua Langraizeko kiroldegian izango da arratsaldeko 18.00etan, ez bakarrik Añanako eskualdekoentzat, baita hirukotearen saioaz gozatu nahi duen jende guztiarentzat ere.

Maiatzak 15. Langraiz. 18.00etan

takolo, pirritx eta porrotx



bihurria. Sorgin izateko ahaleginean pailazoei eta hurrek lagunduko diote Poxpolini: erratzaren gainean ibiliko dira, aztikeriatan, alaitasunaren edabea prestatuko dute eta, nola ez, akelarrean dantzatuko dira.

'Poxpolin Marisorgin' ikuskizunean, magia-joko eta esketx dibertigarriez gain, abesti eta dantza berriei disfrutatuko dugu. Azpimarratzekoa da koreografiak Izaskun Forkada dantzariaren zuzendaritzapean landu dituztela. Pailazoen jantzien diseinuak, euskal jantzi tradizioaletan oinarrituak, Orioko Rosaurarenak dira. Atrezzo koloretsuaren zein CDaren diseinuak Julen Tokeroi dagozkio.

'Poxpolin Marisorgin' diskoa ere ikuskizuna bezain aberats datorkigu. Pasa den irailean eta urrian grabatu zuten Garate estudioan, Kaki Arkarazoren gidaritzaz. Pailazoei osatutako letren konposizioak eta moldaerak Xabier Zabalarenak dira. Oso disko landua dugu emaitza, eta nabarmentzekoa da musikari askok parte hartu dutela, hala nola: Igor Telletxeak bateria eta baxua jo ditu; Luis Mari Morenok, 'Pirata'k, haize instrumentuak; Kaki Arkarazok gitarra elektrikoa; Joseba Tapiak,

trikitia; Leturiak, panderoa; Oreka TX-eko Arkaitz Martinezek eta Igor Otxoak, txalaparta; Olatz Kortak, ahotsa. Haurren eskuhartzea ere garrantzitsua da diskoan: Zaldibiako haurrak izan dira kantuan, eta Lasarte-Oriakoek ipuintxoetan hartu dute parte. Doinuen eta erritmoen aniztasuna nabarmendu behar dugu bilduma honetan: bals, ska, reagge, eta rock motako abestiak eta euskal doinuak tartekatuz lortu du pailazo taldeak disko alai, dibertigarri eta dantzagarria.

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak guztiak gonbidatzen zaituzte sorgin izatera.

Marrubizko muxu potoloak guztientzat!!!!

J oan dena ospakizun urtea izan da Takolo, Pirritx eta Porrotxentzat. 15. urteurrena ikuskizun bihurturik, pailazo taldeak herriz herri ospatu du festa handia. Urtebetetze tarta handiari, gainera, ginda berezia jarri diote pailazoei, Aiora Zulaika taldekideak haurra izan berri baitu. Hori dela eta, Pirritxek oporraldi laburra igaroko du amona Josefinaeren baserrian.

Ez dute, ordea, urte osoa ospakizunetan soilik igaro: aurtengorako istorio berria ere prestatua dute jada. Abentura berrietan Poxpolin Marisorgin izango dute lagun. Euskal Herria sorginen herria izan da beti, eta egungo mundu uniforme, gris eta 'tele-dirijitu' honi kolorea ematera datorkigu sorgintxo izan nahi duen neskatila, euskalduna, alaia eta

OTAMENDIRENTZAT AURTENGO TXAPELA



2 004.eko apirilaren 25a. Egun handia Arabako bertsolari eta bertsozaleentzat. Hirugarren urtez segidan, Gasteizko Principal antzokiak Arabako Bertsolari Txapelketako final handia jaso baitzuen.

22 bertsolarik hartu dute parte Araban zehar jokatu diren lau kanporaketa eta final aurreetan. Horietatik seik baino ez zuten lortu finalerako txartela.

Taula gainean sei bertsolari: Iñaki Viñaspre abetxukoarra, Manex Agirre aramaioarra, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi eta Ruben Sanchez, gasteiztarak denak.

Taulapean adi-adi begira ehunka entzule, baina horietako lauk baino ez zuten iritzi erabakigarriak; Xabier Ormaetxea, Felix Irazustabarrena, Mirari Azula eta Patxi Aizpuruak hain zuzen ere, Karmele Madinabeitia idazkariaren laguntzarekin betiere.

Naroa Sasieta aurkezle eta gai emailearen gidaritzapean, hau izan zen bertsolariek egin beharreko lana: ofizioka binaka zortziko nagusi, zortziko txiki eta hamarreko txikian hiruna bertso kantatuz neurri bakoitzean, puntuari erantzuna eta bina bertso gai bati doinu eta neurri librean. Lan horretan puntuazio altuena lortu zuten bi bertsolariak pasa ziren bigarren fasera, egin beharreko lana ofizioka hiruna bertso seiko motzean eta gartzelan beste hiruna bertso gai bati neurri eta doinu librean izan zelarik.

Asier Otamendi eta Oihane Perea izan ziren bigarren fasera pasa zirenak. Bi horietatik Asier Otamendik eraman zuen txapela etxera.

Urduritasuna eta tentsioa nabariak ziren giroan, baina hasierako agurrean jasotako txalo zaparradak berotasuna eta elkartasuna eskaini zizkien dena emateko prest taularatu ziren bertsolariei. Dudarik gabe, aurten Oihaneren urtea izango zela zioen pankartak ere animoak emango zizkion finaleko bertsolari neska bakarrari. Agurrean denek erakutsi zuten txapela irabazteko gogo. Oihanek

txapeldun batek bezala kantatu nahi zuela esan zuen agurrean, eta ez zuen hutsik egin. Iñaki Viñasprek atzokoa zuen lehenengo finala, baina berarengan ohikoa den moduan indartsu eta gogotsu atera zen jende aurrera.

Lasaitasunez hartu zuten bertsolariek jarlekua lan puntuagarri osoa amaitu ostean. Ordurako epaileen erabakia jakitea baino ez zen falta.

Guztien gaineratik Asier Otamendi gailendu zen 483.5 punturekin, bigarren Oihane Perea 457 punturekin, hirugarren Manex Agirre 297 punturekin, laugarren Juan Mari Juaristi 289 punturekin, bosgarren Iñaki Viñaspre 267.5 punturekin eta seigarren Ruben Sanchez 255 punturekin.

Zigor Enbeitak, iazko txapeldunak eta Arabako Bertsozale Elkarteko lehendakariak, jantzi zion txapela Asier Otamendiri, eta Imanol Lazkano Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak elkarteko oroigarria eman zion.

Ez zen izan bertsolariek egin nahi zuten adinako saioa izan, baina hala eta guztiz ere gustura atera zen entzulegoa Principal antzokitik. Behin memento honetara iritsita eta aurtengo bertso irrika asetuta, datorren urteko Txapelketari itxoitea baino ez zaigu geratzen.

Oihane Perea:

Herri oso bat hiltzori
Duzu nahiko kategori
Lege gabeko terrenoa da
Gogorra da hori
Esku zakar esku guri
Triste noa ta urduri
Gaur beste lau haur hil dituzue
Zorionak zuri!

Asier Otamendi:

Diziplinaren harira
Nik ez dut horren kupira
Ipini zaite hango beltz eta
Gaiztoei begira
Fusila hartu ta di-da
Gogor behar diet tira
Powelli ez al diozu entzun
Terroristak dira




saioa fdz. de arangiz
argazkia: edorta sanz



MAITE RAMOS,

AMESLARIA OSO DEN NESKA



21 urteko gaztea den arren, heldutasun handiko neska dugu Maite. Jadanik, Irratiko Graduatua lortu zuenetik, Gasteizko kazetaritzan murgildu zen eta egun, Tele Vitorian eta Radio Gorbean kazetari eta hizlari lanak egiten ditu, hurrenez hurren. Langilea, kirolaria eta ameslaria da. Argazkilaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa ditu gustuko, izan ere, arratsaldeetan bi materia hauek ikasten ditu Arte eta Lanbide Eskolan. Horrez gain, arras bitxia den zaletasuna ere badu gasteiztarrak, "parapsikologia, tarota eta okultismoa asko interesatzen zaizkit". Denbora izatekotan, poesia zein prosa idaztea atsegin du.

... Duzun biziorik handiena?

Ez dut biziorik.

... Eta bertutea?

Ez dakit, hori besteek esan behar dute.

... Zer eskatzen diozu bizitzari?

Nire ametsak errealitate bilakatzea.

... Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Besteak errespetatzen ez dituzten pertsonak.

... GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

Bai, noski.

... Egunkari bat?

Egunkari ezberdinak irakurtzea gustatzen zait, gero nire iritzi propioa eratzeko.

... Telebista saio bat?

Oso gutxi ikusten dut telebista, baina azken boladan "Los Serrano" telesaila asko gustatzen zait.

... Jaki gozoren bat?

Arrain-zopa eta arkumea.

... Fobiarik, beldurrik?

Egia esan, ez dut fobiarik.

... Oporrak non eta zertarako?

Beroa egiten duen leku batean, batez ere, ondo pasatzeko eta jendea ezagutzeko.

... Eta nora ez zinateke joango?

Hotz egiten duen leku batera...

... Liburu bat?

Psikologiako liburu bat, Torcuato Luca de Tenaren "Los renglones torcidos de Dios".

... Kolore bat?

Morea eta urdina.

... Musika gustukoena?

Egoeraren arabera...

... Animalia bat?

Tximinoa.

... Zer da Gasteizek duen onena?

Lekuak nahiko hurbil daudela.

...Eta txarrena?

Eguraldia.

... Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Zaila izaten da batzuetan, baina posible da.

... Amets bat?

Asko ditut, oso ameslaria naiz.

... Amesgaizto bat?

Nik maite dudak jendea hil egiten dela.

... Zer eskatzen du herriak?

Ongizatea.

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gaste abertzaleak
www.gasteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztoigile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

ADI GAUEKOAKen MAIATZEKO EGITARAUARI
asteburuero, 22.00etatik aurrera

IKA AGENDA BETE KULTURA 2004ko MAIATZA

NOIZ	ZER	EGILEAK	NON	ORDUA
V-11, asteartea	EUSKARA LARDASKATZEKO MANERAK hitzaldia	Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta, Xabier Olariaga	Aldabe Gizarte Etxean	18:00
V-13, osteguna	GASHERBRUM II. BIZITZAREN BIDEAN Ikusentzunezkoa	Joxe Ramon Agirre "Marron", Gidoia: Pako Aristi	Aldabe Gizarte Etxean	10:00
V-18, asteartea	ESKUBIKO PARETAN . Antzeziana	MIKELAZULO K.E.	Gaztetxea	18:00
V-19, asteazkena	Zinema		GURIDI zineman	8:15/15:45
V-20, osteguna	BUHAMEAK EUSKAL HERRIAN. Ipuin kontakizuna	DORO	DENDARABA	10:30/14:00
V-25, asteartea	7 GEZUR TXIKI. Musika eta antzerki. ikusizuna	Ramon Agirre eta Joserra Senperena	Aldabe Gizartetxea	18:00
V-27, osteguna	EUSKALKIAK. HITZALDIA	Koldo Zuazo		16:00
V-28, ostirala	KURAIA. Kontzertua.	KURAIA	AZKENA	21:00

MAIATZA. AGENDA

ERAKUSKETAK & LEHIAKETAK & IKASTAROAK & MINTEGIAK & JARDUNALDIAK

• Mendebalde Kultura Alkartea. VIII. Jardunaldiak: Egokitasuna hizkuntzaren erabileran
Maiatzak 7 (16.00etatik 20.00etara), maiatzak 8 (9.30etatik 14.00etara). Hizlariak: Iñaki Mtz. de Luna, Pello Esnal, Asier Larrinaga, Juan Manuel Etxebarria, Patziku Perurena, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia", Patxo Telleria, Loli Astoreka eta Antton Irusta. Omendua: Gotzon Garate. Tokia: Bilbo. Bizkaiko Batzar Nagusien aretoa. Argibideak: 944028084 / 639152787 / mendebalde@euskalnet.net / mendebalde@mendebalde.com

• 32. Udako Ikastaroak 04
Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.org (informazioa & matrikula)
Biarritz: uztailak 05-09 / Iruñea: uztailak 19-23
Matrikula epea: maiatzaren 19tik ekainaren 27ra

• XVI. Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria-2004
Informazioa: Andoingo Udako Euskara Zerbitzua (943300830) Epea: maiatzak 25

• Fantasi ipuin laburren
XII unibertsitate lehiaketa
Antolatzailea: EHU. Arabako Campuseko Errektoreordetza. Epea: maiatzak 28

• VII. IGARTZA literatura-sorkuntzako beka idazle berrientzat
(narratibako lanak -eleberrri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak
Informazioa: Beasaingo Udako Euskara Zerbitzua (943028063 / euskera@beasain.net)
Epea: uztailak 1

• Pedro de Atarrabia
XVI. Literatur Sariaketa-2004 (kontakizun laburrak)
Informazioa: Atarrabiako Udala-Kultura Zerbitzua
Epea: irailak 17

• INKA TXIKIA
SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Atala: Gidoia.
Oinarriak: www.ed-saure.com
Epea: urriak 23

• INGURUMENARI BURUZKO ALEGIAK
SAURE argitaletxearen baloreari buruzko nazioarteko lehiaketa. Umore grafiko eta tira komikoren atala.
Oinarriak: www.ed-saure.com
Epea: urriak 30

4, 11, 18, 25 PARRAL TABERNA

ekitaldi kulturalak: 25ean Geu Elkarteen eskutik,
kontzertuak, antzerkia... KULTUR ERROTA:
Asteartero, 20.30etan Rafa Ruedaren kontzertua: KEA

14 GEU ELKARTEA & GAUEKOAK

MAIATZAK 14, 22.30etan, ALDABE GIZARTE ETXEAN. Doakoa
JOSEMARI CARRERE: GIZON USTELGAITZA (bakarriketa)

16 GEUREKIN MENDIRA

MAIATZAREN 16an
ARALARREN, TTUTTURRE (1282 m)
ARDURADUNA: TXIPI (945132758)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00etan

16 BIDAIK:

Diaporama JON ARRETXE eta XABIER ERRASTIREN eskutik
Maiatzak 16, 20.30etan Halabedi Tabernan.

19 HITZALDI SORTA-2004

GEU ALDIZKARIA & GEU ELKARTEA & NABARRALDE

(ikus. kontrazala)

"ABIZENEN ESANAHIA" (MIKEL BELASKO)

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA
MONTEHERMOSO KULTURUNEAN: BETOLATZA ARETOAN 20.00etan

25 HITZALDIA

"URTEBETEKOKUPAZIOA IRAK-EN"

JOSEBA IRIONDOren eskutik

(EITBko albistegietako aurkezle izateaz gain, Afganistan eta Irak-eko gatazketan EITBko berriemaile izandakoa. "Palestina Hotela" liburuaren egilea)

Tokia:

Caja Vital Kutxa-ko "Luis de Ajuria" aretoan

(Alaba jenelararen kalea, 7 - GASTEIZ)
Eguna: Maiatzaren 25a (asteartea)
Ordua: 20.00etan

Antolatzailea: Vital Kutxa-ko Euskara Zerbitzua
(Oharra: Antolatutako ekitaldi guztiak euskaraz eta dohainik izaten dira)



22 EUSKAL JOKO TOPAKETAK

XIBAREN eskutik (Ikastolen Elkartea)
MAIATZAREN 22AN, FORU PLAZAN

nori zuzendua:

herrikoia da. 16 urtetik gorakoentzat
antolatzailea:

ikastolen elkarte, Xibaren bidez

(Xiba Ikastolen Elkarteko adar berri bat da, euskal kirol joko eta jolasak jorratuko dituen hemendik aurrera, bai hezkuntzan baita era herrikoian ere)

informazio gehiago: 945276376 (roberto)

25 KULTUR ERROTA & GEU

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria
Maiatzak 25. 20.30etatik aurrera PARRALEN
KONTZERTUA: RAFA RUEDA. "KEA"

26 IRAKURLE KLUBA

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO 20.00ETAN
Maiatzaren 26a, asteazkena
Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea,
Pamiela 2003

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

>GEU

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA

945 22 21 53

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

bar • restaurante •

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

eguzkitarako
nobedade



eguzkitarako nobedade
guztiak MendiaOptikan,
... zatoz ikustera



MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



idazleen gorpila V

DEPENDE V

Rikardo Arregi Diaz de Heredia

Bazekien ez ginela garaiz helduko Durangora baina udaberria ere ondo zegoen liburuak saltzeko. Seguru. Argitaletxeak prest zeukan txosten bat gaiari buruz, Goiko Tabernako Sarraskiaz, alegia, ene eskuetan zegoena, zalantzarik gabe, dokumentalistek egina, paperezko formatuan eta digitalizatuta.

-Argitaletxe serio eta modernoa gaituk.

Truman Capote plagiatzekotan nahiago nuela *Answered Prayers* esan nion, baina oso modu fin eta bigunez hitz egiten segitzen zuen, nik behar nituela egiteko hartan eskuak sartu, komeni zitzaidala komeni, eta, beste hark idatzi zuen bezala, ezetz esateko bide guztiak itxi zizkidan. Berri freskoa eman zidan gainera bukatzeko, *Tontorretik* kantaren hirugarren bertsioa prestatzen ari zirela, norekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin. Bigarren bertsioa, Edurneren taldeak egina, martxosoa zen eta orain, antza, gauza lasaiago bat egin behar zen. Argitaletxeak bazituen interesak musika eta bideo arloetan, liburutegietan eta mila industrian, kulturalak guztiak, jakina. Beti bezala editore jaunak bere esku bigun eta zuriska jarri zidan sorbalda bulegotik ateratzean. Adiorik ez, tamalez.

Argitaletxetik gaizki ateratzen beraz. Terraza batean eseri nintzen gin-tonic bat edatera. Musika tabernatik iristen zen kalera, eserita nengoen lekura. Laugarren kanta *Tontorretik* izan zen, euskaldun gehienek, euskara ikasten ari ziren guztiek eta erdaldun askok buruz zekiten *Tontorretik* ospetsua.

*Maite zaitut maite maite
Ez al duzu entzuten nire aienerik
Mendi garaienaren tontorretik
Etsipenez gainezka amodio eske?*

Izugarria zen kantaren arrakasta. Eta orain nik *Tontorretik: Liburu*a idatzi behar nuen. *Tontorretik*. Kaka zaharra. Txontorretik. Kaka zaharra. Josurekin hitz egin beharko nuke, baina ez nuen bat ere gogorik kartzelara edo ospitalera joateko, ez ditut maite. Edurne Zurutuzaekin errazagoa zen, ezagutzen nuen gainera, musika eta kontzertu zirkuituetan ohikoa denez. Bestalde bazegoen mutiko bat, orain dela lau urteko Sarraskitik bizirik atera

zen bakarra, baina koman zegoen ospitalean. Ama garbitzailea zen ospitale berean eta istorioa oso ezaguna zen, telebistetan noizbehinka ateratzen zelako oraindik. Baziren ere beste lekukoak, Josurekin egun hartan hitz egin zuten batzuk, puta bat... epaiketan agertu zirenak. Hortik ibiliko ziren. Beste gin-tonic bat eskatu eta Edurneri hots egin nion telefonoz. Argitaletxeak eginiko txostenean helbidea ere bazetorren. Moderno eta serioak ziren, bai.

Nire izena eta bi abizenak erabili nituen ene burua aurkezteko, Rikardo Arregi Goldstein (rikardoarregi gehiegi zegoen euskal letratan baina ni nintzen eta naiz erdijudua den bakarra, idatziko dut horretaz noizbait). Elena Zurutuza oso atsegina izen zen, nire kritika onak (gezurrezkoak gehienak) eskertu zizkidan, prestatzen ari nintzen liburuaz hitz egin nion nik eta berak senarraz. Hurrengo arratsalderako antolatu genuen hitzordua, bere etxean. Trenean txostena begiratu nuen gainetik, dena zegoen, istorio osoa: sarraskia bera, protagonistak, hildakoak, senitartekoak, epaiketa, eta gero, alde erromantikoena, Edurne Zurutuza eta Josu Arrastiren arteko ezkontza kartzelan, bien artean eginiko lehen kantak, Edurneren musika taldea, arrakasta, laudorioak, diskoak, bideoak. Egia esan, liburu bat ez egotea zen hutsune bakarra. Bat-batean oso erraza iruditu zitzaidan liburu idaztea.

Edurne Zurutuza alde zaharrean bizi zen zakur batekin, 170 metroko pisu batean. Dekorazioan gauzarik modernoena eta baserri zaharreko kutsukoak nahasten ziren oso ongi, dena oso orekatua, nabaria zen dekoradorearen lana. Eta dirutza. Arratsaldea oso azkar pasa zen, garagardoak oso azkar pasa ziren, sorbeltzak oso azkar pasa ziren dorreen artean, porruak oso azkar pasa ziren, den-dena oso azkar pasa zen, eta gutxien espero nuenean hor nuen Edurne Zurutuza nire aurrean belaunikaturik nire zakila ahoan. Geroago esan zidan

-Josuri ez zaio orain altxatzen. Ondorio psikologikoak, badakizu.

Argitaletxetik gaizki ateratzen. Ene nagusi bigunarekin izandako elkarrizketa lagunarte lasaian hasi bazen ere, berehala joan zen latitude hotzetara. Argi zegoen ene ipuin bilduma ez zuela ateratzeko asmorik eta beste nonbait prestigiozko edizioa egitea iradoki zidan. Hitz horiekin. Ene burua babestu aldera, eta ezer argitaratu gabeko bi urteak gogoan nituela, baita berak ere izango zituen bere gogo bigun nardagarrian bi urteak eta kontratua eta auskalo zer gehiago, proposatu nion *Euskal rock musika III* ateratzea.

-Jakina, aterako diagu hirugarrena. Baina, Rikardo, oraingoz ez. Ez zegok motiborik. Lehena eta bigarrena oso ondo saltzen ditiagu une hauetan, oso onak dituk. Orain beste zeregin bat diat hiretzako. *Euskal rock musika III* seguru zegok, egingo duk, baina orain *Tontorretik* diagu.

Esan beharko nuke orain segundo batzuk egon nintzela ezer ulertu gabe baina ez dut uste hori gertatu zitzaidanik. Gogoratzen dudana da ene nagusi biguna mahaitik altxatu zela bere alkandora arrosaren itsusi higuigarria gela osoan zabalduz. Korbata lepoaren inguruan atontzen zuen bitartean asmoa azaldu zidan: Goiko Tabernako Sarraskiaz idatzi behar nuen.

-Istoria osoa bai, eta alde psikologikoa, hik badakik horretaz gainera, psikiatrikoan dago tipoa, edo kartzelan. Ez zekiat non, uste diat egonaldiak egiten dituela bietan. Azken finean errugabe bat duk, ez? Guztiok bezala. Errua erlatiboa duk. Hik badakik. Truman Capoteren zera horretan bezala, *Odol hotzean* edo horrelako zerbait. Eta musika, hori bai, kantaren istorioa, *Tontorretik* horren istorio osoa, Edurne Zurutuza musika, eta Josu Arrastiren hitzak, diskoa, taldea... Hik badakik.

TOKI EDER, APUSTUAREN BALIOA

KOLDO ORTIZ DE GINEA

Orain dela mende laurden bat baino gehiago sortu zen Toki Eder ikastola Gasteizen. Ez zen hasiera samurra izan, eta bere ibilbidean suertatu zitzaizkion eman beharreko pausoak ez ziren ere errazak izan. Bide malkartsu bezain adoretsua izan zen jorratu zuen ibilbidea. Lorpenak izan ziren eta ez nolanahikoak, alajaina! Horiñ artean hauek aipa daitezke: Gasteizen D eredia ikastetxe publikoetan ezartzea —hau legeak ez zuen jasotzen—; umeez euskaraz hitz egitea naturaltasun osoz —hau “adituek” ez zuten onartzen—; baina, ororen gainetik, han bizitako esperientzia ahaztu ezina izan da hori nolabait bizi duenarentzat —hau pentsamendu berrirako betiko geldituko da—.

Dena den, aurrera egin baino lehenago ikastolen sorreraren historia egitea komeni da. Esan beharrik ez dago ikastolak egoera guztiz kaskar batean sortu zirela, agintean zegoen kultura erabat arrotza baitzen. Gurea ez zenak agintzen zuen eremu guztietan, objektiboan eta subjektiboan. Bistan da, horrelako egoeran zerbait sortzeko, kanpoan zein barruan dagoenaren aurka jo beharra zegoen. Baina ikastolek zerbait erabakiorra bazuten beren alde, eurek biltzen baitzuten beren baitan herri batek duen bizitzeko gogoia. Hori horrela izanik, ezinbestekoa zen baita ere helburu garbiak eta zehatzak edukitzea, ikastolen egitasmoak hasi eta aurrera egitekotan. Eta helburu horiek bazeuden, bakar batean laburbildu zitekeen arren: ikastolak euskaldundu behar zuen ingurua. Sinplea badirudi ere, hori gauzatzeko mila oztopori aurre egin behar izan zitzaion. Esan bezala, lehenengo bultzatzaile haiek dena zeukaten kontra; legetik hasita, orduko mentaliteraino, alde zeukaten gauza bakarra beren determinazioa zen, irudimena eta konfiantza jorratzen ari ziren bidea egokiena zela ikasleak euskalduntzeko.

Baina konkretuki nolako lan egin behar zen aipatutako helburua lortzeko? Zein zen metodologia? Ordura arte zegoen irakaskuntzarekin —publikoarekin zein pribatuarekin— apurtu egin behar zen; hau da, guraso eta ikasleen parte-hartzea prozesu osoan behar-beharrezkoa zen; gurasoek eta irakasleek, bestaldek, elkarrekin lan estua egin behar zuten. Horrela lortu zen ikasleek euskara familia arteko giroan ikastea: zuzenean irakasleengandik, gauza berriak aurkitzeko gogoia piztuz, sormena bultzatuz eta motibazioa zabalduz. Ezer-ezeretik hasi beharra zegoen, eta hasi egin zen. Dena asmatzeko zegoen, eta asmatu egin zen. Lan egiteko modua garbia zen: emaitzak aztertzen ziren, frogatzen zen berrirori, berriz ere berraztertzeko, etengabe eraberritzen zen eta fruitua agertzen hasi zen. Baina trantsizioarekin batera, erakundeak sortu ziren horiei ordezkari emanez eta horrek ekarri zuen berekin dinamismo parte-hartzailearen galera bi ondorio zuzenekin: desmotibazioa eta urruntasuna. Hortik sartuko dira orientabide psikologiko enpiristak eta oinarri linguistiko estrukturalista. Biak guztiz

desegokiak gure hizkuntza berreskuratzeko, frogatu den moduan. Praktikan horrek haxe ekarri zuen: sormena, naturaltasuna, inguruarekiko kontaktua, partizipazioa, ikerketa, motibazioa eta abarren bazterketa. Hitz batean, subjektibitatea eta politika huts egiten hasi ziren, eta horrek gauza bat bakarrik ekar zezakeen: uzteak, etsipena eta zapuzketa, eta baita ekarri ere.

Erakundeetatik zabaldu nahi zuten mezua —normalizazio-bidean geundela, hain justu— fruta pozointsu bat besterik ez zen. Krisi-egoera horretan, zenbait taldek hasierako modura bueltatu behar zela ikusi zuten. Eta horrela, hamaika debate, asanblada eta mobilizazioen ondoren, Toki Eder kolektiboa sortu zen Gasteizen. Hiri hura, orduan inposatzen zen elebitasunaren eremuan kokatuta zegoen, eta, beraz, B eredia irakatsi behar zen. Hau da, euskara ikas zitekeen, baina inguruan zegoen giroarekin gatazkan sartu gabe; gaztelania badaezpada ere jaun eta jabe. Estatu-boterearen sumisia, hizkuntzan islaturik. Hala ere, Toki Eder kolektiboak ez zuen bat egin ideia harekin, eta ikastola propio eta euskaldun baten alde apustu egiten du. Kolektibo honek beren



Toki Eder ikastola 1986

erreibindikazioak justuak zirela konfiantza edukiz, borrokari ekin zion. Horrelako prozesuan subjektibitate berriak sortzen dira, eta hauek prozesu berriak sorrarazten dituzte etengabeko mugimendu batean. Denek, irakasleek eta gurasoek, komisiotan bildurik, norberaren onena eman zuten, ondorio zuzenekin ikasleentzat, bai hezkuntzan, bai motibazioan. Horrelako eta antzeko mementoetan sekulako energia biltzen da, eta dena posible bihurtzen da; “ezina ekinez egina” esaldia egia bihurtuz. Hori guztia horrela izan zen honelako arrazoiengatik: bai irakasleek, bai gurasoek parte hartzen zuten, motibazioa suspertu zen eta pedagogia-berriztapena garatzen. Euskararen erabilera guztiz normala zen ikasleen artean, bizitzaren eremu guztietan.

Hala ere, inertziaren eta errutinaren pisu izugarriak mehatxatzen du ikastolaren egitasmoa. Izan ere, orduko energia

aienatzen eta lausotzen joaten denean, gutxien kontzientatuta dauden elementuek atzera jotzen dute. Horrela, bada, irakasleek hasierako ilusioa galdu egin zuten, ez baitzuten lehenengoko presio motibatzaileak jasotzen eta, bestalde, betiko jarrera erosoak eta gremialistak gurasoekiko deskoordinazioa eta mesfidantza eragin zuten. Benetan hori guztia, sintoma bezala agertzen dena, barruan arazo larriak dauden seinalea besterik ez da. Horrela, ikastolaren egitasmoa kolokan jarri zen.

Benetan falta zena ikastolaren egitasmoa aurrera eramateko borondate politikoa zen. Ataka horretatik ateratzeko asmoz, gurasoen batzordeak proposamen zehatzak planteatu zizkien irakasleei, ikastolan lan egiteko. Horiek ez ziren onartuak izan, eta, gainera, irakasleen kontraproposamenen gurasoen eta irakasleen zereginak guztiz banatzen zituzten; ikastolaren lan egiteko moduari muinean joz. Irakasle ikastolatik atera ziren zenbait gurasorekin, apurketa sortuz. Dena den, horrek esan nahi du, berriro ere, une horretan azaldu zena beti egon zela hor, eta bakarrik aukera bat behar zuela bere gordinean azaltzeko. Benetan bi ikuspuntu zeuden: gurasoen papera kolokan zegoen ikastolan. Kolektiboarentzat gurasoek berek, irakasleekin batera, lan egin behar zuten, euskarri ezinbestekoa zelako ikastolak zituen helburuak lortzekotan. Alde egin zutenentzat, berriz, betiko ikusmoldean ikusten zuten bakoitzaren zeregina; hots,

guztien gainetik, euskara bereganatzea gauza justu bat da, eta, justizia horretan oinarriturik, kolektiboak eskubide osoa dauka euskara ikasteko eta irakasteko era jarraituan eta zehatzean. Beste modu batez esanda, irakasleen balizko autonomia ez zen errealitatean betetzen; azken batean, irakasleak kontratatzeke orduan eta ikastetxeen gobernuan azken hitza duena administrazioa da eta bera da, beraz, egiazko patroia ikastetxe publikoetan. Horrela bada, han Estatu (administrazio baskongadetan errepresentatua) eta izaerazko herri-mugimendu nazionala buruz buru jarri ziren.

Euskara identitate nazionalaren sinboloa da, kontzientziatzeko balio duena. Balio kulturala ere bada, zeinaren bitartez herri bat ezagutua den, mundua ezagutzeko bitartekaria den eta pentsamendu propioari hurbiltzeko modu espezifiko bat. Hizkuntza ez da soilik zeinu komunikatibo bat. Hizkuntzarekin batera, balioak, kontzepzioak, pertzepzioak eta bertako ikuspuntuak jasotzen dira. Gauza jakina da eta arrazoï berberengatik, bestalde, hizkuntzak kolonizazio kulturalaren oinarriak jartzen dituela eta horrela besteen begiradak eta interesak norberak propioztat hartzen dituela. Horiek dira, hain zuzen, emeki baina gelditu gabe, besterik ezean, gure munduan sartuko direnak.

Horregatik eskolan euskara erreibindikatzea alde erabakigarri bat da nazio-erakuntzan. Saihestu ezina. Hori dela eta, euskara hizkuntza nazional bezala aldarrikatzen duena subjektu politiko bihurtzen da automatikoki, eta bere ekintza politikoa izango da nahi eta nahi ez. Horrek berekin darama euskaraz bizi behar dela gure mundu propioa eraikitzeko; betiere pentsatuz, etorkizuna norberaren jarreraz baldintzaturik geratuko dela. Horrela bada, alde linguistikoak politikoan izango du oinarria. Beraz, ikasleria euskalduntzeko arazoa ez da linguistikoa, politikoa baizik. Hau da, ez da nahikoa ikastetxeetan D eremuan irakastea, mundu guztiak dakien moduan, ikastetxe horiek ez baitute bermatzen euskaraz biziko denik. Ikastetxe horien funtzionamendua guztiz garrantzitsua da. Toki Eder Gasteizen eta Lizarra Ikastolak esate baterako adibiderik aproposenak dira. Biek lortu baitzuten eremu erdaldunetan ikasleak euskaraz bizitzea. Eta nola lortu zuten? Esan bezala, ikastolaren elementu guztiak inplikaturik eta ingurunea euskaldunduz; horrela, ikasleak euskaraz bizi ziren. Noizbait hezkuntza-eskola nazionalari buruz hitz egin ahal izango denean, ikastolaren oinarritzko elementu horiek hartuko ditu. Eskola publikoak ez du euskalduntzen, eta, gainera, estatuaren gehigarri partikular bat besterik ez da. Toki Eder ikastola da adibiderik gardenena. Sare publikoan sartu zutenean, Toki Eder ikastolako egitasmoarekin amaitu zuen administrazioak, eta gurasoek koherente izateko honela esan zuten: "Jadanik, hau ez da gure ikastola" eta amaiera eman zioten eginiko ibilbide zoragarriari. Hau dela eta, ziklo hau amaiturik, eta ikastolak bere zeregin historikoa bete behar duenez, herriarengandik sortzen den indarrean konfiantza oinarriturik, euskal eskola nazionala eta propioa berriz aldarrikatzea posible izango da.

© geu aldizkaria / koldo ortiz de ginea



irakasleek profesionalak dira, eta, beraz, eurek bakarrik diseinatu eta ezarri behar dituzte metodologia eta pedagogia. Talde horrentzat, gurasoak, beraz, bigarren mailan zeuden; irakasleekin kolaboratu eta eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzera mugatzen zen soil-soilik beren zeregina. Hitz batean, irakasleen erabateko nagusitasuna irakaskuntzan eta kudeaketan. Azken finean, bi ikusmoldek talka egin zuten: alde batetik, ideologia korporatibista, eta hezkuntza nazionalaren ikuspuntua, bestetik. Azken hauentzat ikastola eremu subjektibo singularra da, non beste modu batez bizitzean, denek ikasten duten. Hau da, bizitza sentikorra, osoa, justua, solidarioa, betegarria eramaten ikasten dute. Egoera horretan Toki Ederrek ekintzak argitzen ditu, pentsamendua berpizten da; hausnarketa zuzenak bere tokia aurkitzen du eta eztabaida apasionatua da. Hitz batez, ikastola politikarako eremua bihurtzen da: alderdi



"LIVE IN MUSIKARIEN

Kuba, Venezuela, Brasil, Uruguai, Argentina, Ekuador, Senegal, Georgia eta Euskal Herriko haizeak dakartza **Zunzun Talde Interkulturalak** argitaratu berri duen "Live in Vitoria. Mere mere con pan caliente" disko-liburuak.

Munduko puntu ezberdinetatik etorriak Gasteiz dute bizitoki gaur egun egitasmo berri honetan parte hartu duten musikari guztiek. Euren musikari esker Gasteiz kolorez jantziago dago honezkerok; beraien bizimodua gurera egokituz, Arabako hiriburua beren bizitzeko indarraz busti da.

"Live in Vitoria. Mere mere con pan caliente" izeneko lana gure hirian bizi diren musikari etorkinen musika anitzaz egina dago, baita bertako Dj Cubo, Kamellito eta Pinttu musikarientzat ere. 90 orrialdez eta 18 kantaz osatua, disko-liburuak gure hirian gero eta maizago goza daitezkeen boleroak, jazz, flamenkoa edo tangoak bildu ditu gurera duela hamar urte baino gutxiago heldutako bizilagunen kolaborazio musikalariekin. Jamila Castillo Zunzun taldeko kide eta liburu-disko honen bultzatzaileak egitasmoaren nondik norakoak azaldu ditu:

-Diskoan hirian bizi diren musikari etorkinen kanta bildu dira. Aukeraketa bat egin duzue edota guztiak daude hemen? Nola sortu zitzaizuen diskoak egiteko ideia?

Bai, guztiak daude, baina falta dira batzuk ere. Nik dakidanez: Bachir, Marokokoa, lautea jotzen duen arabiarra. Manolo, rapa egiten duen eta baxua jotzen



Jamila Castillo

duen kubatarra; Garage H-ko kide ohia. Errusiar abeslari klasiko bat, Venera Viana izena duena, Venezuelako tenore bat, Gasteizko Kontserbatorioan ikasten ari dena; eta baita Saharako jendea ere; diotenez badira jamaikar bat, diskoan sartzekotan egon zen eskoziar bat, eta Pablo Fontán, Uruguako pianista eta musikagilea, CDaren hasieran Juan Chaínen gutunean aipatzen dena.

-Musikarien artean badaude gasteiztarrek ere. Zergatik aukeratu dira musikari horiek?

Musikari gasteiztarrek, euskaldunak edota espainiarrak, denetarik; musikari etorkinen proiektuetan parte hartzen dute, batzuek beti eta beste batzuek une zehatz batzuetan; normala da hemen agertzea,

egunez eguneko jardunean elkarren ondoan ibiltzen baitira. Lagunak, lankideak, auzokoak gara. Finean, gauza bera egiten dugu.

-Zer da "mere mere"? (Soinu goxoa du, benetan).

Bai, kanta horren egileak, Leonel Ruizek, esana da. Venezuelako lagunarteko hizkeran maiz erabiltzen da esaldi hori, haurrei gaizki portatzen direnean izango duten ordainaz abisu emateko: "te voy a dar mere mere con pan caliente". Baina Leok dioenez, gizonak neurritz kanpo dabiltzanean ere, emakumeek horixe esaten dute.

-Diskoa salgai al dago jada? Zein da diskoaren prezioa?

Hogeita bat euro, hiru mila pezeta inguru. Ez dago gaizki, disko-liburu bat dela eta koloretako 100 orrialde dituela kontuan hartuta. Eta 15 musika-korte ditu. Arriaga Megadendan dago salgai, San Prudentzio kalean.

-Horixe da guztia Jamila, zerbait gehiago kontatu nahi badiguzu...

Eskerrik asko ekimen jator honen aurrean sentsibilizatu zareten komunikabide eta pertsona guztioi. Nik uste dut ekimen honek mugarri bat adieraziko duela hartu gaituen gizarte honetan, Euskadin, eta espainiar estatuan, integrazioari begira.

Besarkada handi bat, eta gozatu Mere mere lanaz...

VITORIA", HORTZADARRA

Bizimodua eta sendia atzean utzi eta herri berri batean hasia ez da sekula erraza. Baina musikak eta harrera on batek gauza samurragoa egin dezakete. Egun lagun hauen guztien hiria den Gasteizen bizitzeak zer ekarri dien galdetu die Jamilak musikarioroi. Erantzuna disko-liburuan aurki daiteke. Bakoitzak bere esperientziaz mintzo da. Honatx horietako batzuk:

Garotos do Brasil (Brasil)

"Gogoan ditut Gamesara etorri ginenean jendeak esaten zizkigunak: -Ah! Brasilgoak?, baina, oihana eta indiarrek besterik ez daude han, ez?

Benetan diotsut. Eta gure erantzuna, honakoa: -Eta Espainian, toreatzaileak eta sevillanak baizik ez al daude?

Brasil herrialde azpigaratu gisa baino ez da ikusten: kaleko umeak, inauteriez baino pentsatzen ez duen jendea, jaiak, futbola... Hegazkinak egiten ditugu hemen, Europan, Brasilgo teknologiarekin. (...)" (live in vitoria, 57 orrialdea).



Marina Cedro (Argentina)

Gasteizen bizitzeak etxetik kanpo bizi berri bat hasia esan nahi zuen, nire ametsak betetzeko paradarekin topo egitea, gustatzen zaidana bizitzea. (...)

Eta hemen musika eta olerkia goizetik gauera bizitzeko aukera izan nuen. (...) Euskaldunak oso gogorak direla esan ohi dute. Oso prestuak dira! Zuhaitz baten modukoak. Eta babestua sentitzen naiz, gertatzen zaidana interesatzen zaie, nire herria bezala, Argentina". (live in vitoria, 34 orrialdea).

Valeria Marcon (Venezuela)

"Gasteizen bizi berri bat hasi nuen. Ezkondu egin nintzen eta operazio-basea hirian ezarri nuen. Hala ere, onartu beharra daukat Venezuela asko botatzen dudala faltan. (...) Baina Gasteizek xarma berezi bat du. (...) Gasteizen bizitzea abentura bat izan da, esperientzia hau ona izateko osagarri guztiak dituen. Film bat, sentsazio nostalgiko eta aldi berean bikaina uzten dizun horietako bat". (live in vitoria, 24 orrialdea).



PARTEHARTZAILEAK:

- 1-Juan Chaín (Uruguai)
- 2-Paulo Costa (Brasil)
- 3-Kamellito (Euskal Herria)
- 4-Birongo nzulu jazz trío (Venezuela-Euskal Herria)
- 5-Valeria Marcon (Venezuela)
- 6-Illiana Ross (Kuba)
- 7-Marina Cedro eta Ricardo Urrutia (Argentina-Euskal Herria)
- 8-Acuarela (Ekuador)
- 9-Teranga Percusión (Senegal)
- 10-Dúo Iberia (Georgia)
- 11-Antonio Ruíz (Venezuela)
- 12-Jamila (Kuba)
- 13-Pintu Alegría (Euskal Herria)
- 14-Garotos de Brasil (Brasil)
- 15-Dj Cubo (Euskal Herria)

Acuarela, Elias Chavez (Ekuador)

"Euskal Herriari buruz esaten diren gauza guztiak alde batera utzita, eta bereziki Gasteizi buruz, gai politikoari buruz, guztia errealitatetik oso urrun dago. Hemen kaletik oinez ibiltzeko askatasuna daukazu, jendeak pentsamendu-askatasuna du, oso irekia da. Beste hainbat lekutan ez duzu hori aurkituko. Beste hiri batzuetan bizi izan naiz, baina honek erakartzen nau".

(live in vitoria, 38 orrialdea).



www.colectivozunzun.com

e-mail: zunzun@colectivozunzun.com

bidaia

testua & argazkiak: xabier errasti, 'jerras'

Nik ez dut sekula irakurtzen; noizbehinka, ordea, liburu bat eskuetan izaten dut, maiz bidaia bati ekin baino lehenago.

Hortaz, liburu bat bidaia bat da, ala bidaia bat zuri dagoen liburu bat bezalakoa dela esan daiteke?

"Cita en Tombuctú", "Ulises", "Rayuela", barru-barruko bidaiak, nire gorputzak (kanpokoak) egunez egun igarotzen diren orrialdeen gisako lerroak jarraitzen dituen bitartean.

Haiek zuk sufritzen duzuna sufritzen dute, euria, haizea, papera kiskaltzen duen eguzkia, eta tinta lurrindu egiten da.

Batzuetan pusketan hausten dira eta beren orriak itsasoraino hegaz egiten dute; arrainek ez zuketena sekula giza hitzekin betekadarik izan beharko!

Egun hartan olerkari baten ametsen atzetik korrika egin nuen, BERA niretzat gordeta zuen lorea berreskuratuz.

Egia esateko: kanibalismo literarioak hori egiteko gai denarentzat gordetzen ditu bere emozioak. Cortazarrek, adibidez iradoki egiten du, liburuak bere burua irensten duen egoera batera bultzatzen eta probokatzen zaitu, autoelikatuz, irakurtzen den bakoitzean testu berri bat sortaraziz.

Bizipen horien lekuko izan nintzen nire bizitzan eta azalean. Nire azalaren azpian horrenbeste sentitu nituen, behingoa



errotik atera eta nire Aztiari maitasun gutun bat idatzi niola. Berarentzat, BERA zegoen tokian zegoela, galtzadarri baten gainean geldirik edozein katuren ondoan, edo akaso, "hain gustura egoten den kafetegitxo goibel horretan", edo eskailera buztia hirunaka korrika jaitsiko balitu, baliteke geltokian... zergatia jakin gabe topo egitea.

la sekula itzuli ez zen hura bezala, irlaz irla bidaiatuz jostatu nintzen; denbora batez ez bueltazeko moduko eguraldia egiten zuen. Baina, bi artxipelagoz eta basamortu batez blai bueltatu nintzen.

Liburuek, berauek errealitate bilakatzeraz, ordenatu behar ditudan hitzez inguratuta bizi naizela sinistaraztera naramatela ematen du. Txiki eta paragrafo mardulen zutabeek zapalduta sentitzen dut nire burua, haizea keaz betetzen duten bokalezko etxe-orratzek zapalduta.

Horrekin ez nituzke idazki soilen idazleak mindu nahi; egunen batean horretarako gai izango naizen itxaropena baino ez dut gordetzen.

Horregatik TOMBUCTUra heldu nahi nuen, jomuga mitikoa, begitazio modelatua, musketa erotua...


"Haizearen gaineko begia
basamortuko perla

Ilargi zaharraren distira
karmin-koloreko argi lokartua

Ahaztura baten gelditasunean
eusten den semaforoa

Tombouctou, jomuga mitikoa
begitazio modelatua
musketa erotua".

TOMBUCTU



Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

Artziniegaz galde egin?

Agur eta erdia, irakurle. Aurreko zutabettoetan adierazi genuenez, egun deitzen ohi dugun "Araba" Nafarroaren baitan zegoen antolaturik. Bere lurrak, ibarrak, lautadak, mendialdeak nafar eskualde batzuk ziren; eta horietako bazter eder bat, lerro hauetako izenburuak agindurik, Artziniega zen.

Bada, 1682ko azaroaren 24an Artziniegako ermandadeak Batzar Nagusietarat igorri zuen prokuradoreak ez zekien erdaraz eta, horren ondorioz, sarrera galarazi ziotela dirudi. Prokuradore delako hori, Artziniegako hautetsia, ez zen herriko txiroena, ziur. Izaitekotan, ia XVIII. mendean murgildurik, bertako jaunttoren bat zela pentsa dezagun arrazoin franko dugula ezin ukatu. Hots, ia 1700. urtean Artziniega euskaraz bizi zela, udalerrri euskaldun hutsa zela iradokiten ahal da.

Ai ene, baina, orduan, hori egia izanik, zer hizkuntzaz baliatzen ziren artziniegarrak ondoko "Artieta", "Montiano", "Medianas", "Viérgol", "Opio" eta Burgosko bertze hamaika herritako biztanleekin elkar ulertu ahal izaiteko? Eta Balmasedako azokan? Barkatu, Lazarragak zioenez "ahantzitu" baitzait "Euskel Herria" ez dela inongo errealitaterik, ezta "subjektu historiko" txatxorik ere. Erran nahi baitut eginiko gogoeta galderatto horiek ez direla fashion. Erlantz txoriburua, txorua, modernitatearen onurak onartu ezean afera zahar horietaz arduratzea ere...

Aspaldiko historiak erakusten digu, halere, Artziniegak Arabaren baitan duen egungo tokiaren jabe bihurtu aurretik, bere inguruko lagunak kulturalki euskaldunak eta politikoki nafarrak deitzen ohi zirela, ez burgostar ez arabar. Aurten Antso III.a Nagusiaren milurtea (1004-2004) ospatzen ari garelarik, Artziniegaz landa aipatu bertze herri horiek guziak nafarrak zirela aise baieztatzen ari dira ikerlariak. Eta haien hizkuntza, jakina, nafarron hizkuntza zen. Horren ezagutarazteko, erran beharrik ez dago, Nabarralde enpresako kideok ari gara.

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

ARROZESNE KREMA
XIGORTUA, LARANJA
& KANELA IZOZKI ETA
TXOKOLATE & BANANA
KOPATXOAREKIN



LAU LAGUNENTZAKO OSAGIAK:

Arrozesne krema txigorturako

- Arroza 80 gr
- Esnea 0'5 l
- Esnegaina 0'5 l
- Azukrea 125 gr
- Laranja azala
- Kanela-zotza
- Anis likore apur bar

Izozkirako

- Laranja zukua 3dl
- Limoi zukua 1dl
- Esnegaina 0'5 l
- Esnea 0'5 l

- Azukrea 250gr
- Glukosa 50gr
- Kanela-zotza

Banana eta txokolate
kopatxorako

- Txokolate moussea
- Banana moussea
- Banana xerratxoak

Hornigairako

- Laranja saltsa
- Teilak

PLATERAREN PRESTAKETA:

Arrozesne krema xigortua

- Ur irakinetan galdarraztatu arroza minutu batez.
- Ondoren, aurrez kanela eta laranja azalaz lurrindutako esne eta esnegain irakinetan bota arroza, eta 45 minutuz egosi, azukrea azken orduan gehitu.
- Pixka bat epeldu ondoren, film paperetan bildu, eta zilindro forma eman. Sartu hozkailura, eta bertan utzi ondo gogortu arte.
- Borobil formako xerretan moztu, azukreaz hautseztatu, eta plantxa bero batekin gainetik erre, ondo txigortu artean.

Izozkia

- Irakin esnea, esnegaina, azukrea, glukosa eta kanela-zotza, dena elkarrekin.
- Hozten utzi, eta laranja eta limoi zukua gehitu.
- Uzi ordubetez izozkiak egiteko makinan, ondo mantekatu arte. Gorde izozkailuan.

MUNTAIA:

- Hiru bat arrozesne krema xerra jarri plateraren albo batean, bata bestearen gainean erdi muntatuta.
- Kanela hauts apur batez hautseztatu.
- Alboan teila pare batez apaindu.
- Plateraren erdian bi izozki bola jarri, eta plateraren beste aldean txokolate eta banana kopatxoa teila batekin.

KULTUR ERROTA. GEU

MAIATZAK 25, PARRAL-EN, 20.30ETAN

kontzertua

RAFA RUEDA: "KEA" (Pop-rocka)

Rafa Rueda Pi-L-T talde ezaguneko abeslaria dugu, baina bakarkako bideari ekiterakoan aukeratu dituen doinuek bestelako bidea hartzen dute.

Britaina handiko pop eta rock doinuek ardatz, sosegu handiagoko giroak eta landuriko kantuak agertzen dizkigu Rafak. Pop, rock eta autore kantuaren artean mugitzen da Rafa bere estreina-lan honetan, aipatutako taldearekiko aldaketa nabarmena bada ere, hau ez zaio inondik inora arrotz, izan ere badu eskarmentua horrelako diskoetan. Besteak beste, Kokein taldearen diskoaren ekoizle izan zen, baita Txuma Murugarrenen azken bi diskoena ere.

2003ko azarotik kalean dago musikari interesgarri honek bakarka egin duen estreina-lana KEA izenekoa, bertan argi igartzen da Rafa Ruedak Euskal Herriak pop eremuan duen gabezia erruz betetzen duela.

Euskal musikagintzak azken urteetan eman duen egilerik interesgarrienetako baten alderdi gordea ezagutzeko aukera paregabea. Melodia eta kantu perfektuaren bila egin dituen urteok, kritika zein publikoaren oniritzia ekarri diote egitasmo ezberdinetan, baita berri honetan ekarriko ere.



GEUREKIN MENDIRA

MAIATZAREN 16an

ARALARREN, TTUTTURRE
(1282 m)

ARDURADUNA:
TXIPI
(945132758)

IRTEERA: LOVAL-
NA PLAZAN, goi-
zeko 9.00etan



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

HIKAATENEO-N
ARRATSALDEKO
20.00ETAN

Geu elkartearen ekimenez

Maiatzaren 26a, asteazkena
Bernardo Atxaga, Soinujolearen
semea, Pamiela 2003

Ekainaren 30a, asteazkena
Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu,
Alberdania 1995

Sarrera
dohainik.

"GIZON USTELGAITZA"

GEU ELKARTEA & GAUEKOAK

JOXEMARI CARRERE:
GIZON USTELGAITZA

MAIATZAREN 14an, 22.30etan,
ALDABE GIZARTE ETXEAN

Gizon Ustelgaitza (O incorruptivel)

Egilea: Helder Costa • Zuzendaria/Egokitzailea: Miguel Galindo
Antzeslaria: Joxemari Carrere

Helder Costa antzerkigile portulgaldarrak politiko profesional baten gain behera aurkeztu digu bakarriketa honetan. Ikusleari barreekin batera politika munduaren gaineko gogoeta aurkeztu dio. Baztertuta sentitzen den politikaria egoera horren gaineko gogoeta egingo du bere bizitzaren hainbat arlo aztertuz. Pertsonaia groteskoa agertuko zaigu, baina, era berean, izaera humanoaren alde ilunak erakutsiz. Barre egiteko bakarriketa dugu hau, baina baita ere bizi garen munduaz hausnarketa egiteko.

blai . com

HITZALDI SORTA-2004

(ikus. kontrazala)

GEU ALDIZKARIA eta GEU ELKARTEAREN ekimenez,
NABARRALDEekin elkarlanean

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA
20.00etan, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN,
BETOLATZA aretoan

HITZALDI MULTIMEDIA: ABIZENEN ESANAHIA
MIKEL BELASKO





HITZALDIK-2004

MONTEHERMOSO KULTURUNEAn BETOLATZA ARETOAn

20.00etan

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

ABIZENEN ESANAHIA. MIKEL BELASKO.

URRIAK 20, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

EUSKAL ESTATUAREN SORRERA. ERLANTZ URTASUN.

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

1000. URTEKO EUSKALDUNAK. ERLANTZ URTASUN.

ABENDUAK 14, ASTEARTEA

HERRI KIROLA & SOLASALDIA:

IÑAKI PERURENA: "50 ALTXALDI, 50 GALDERA".